

HEGATS

Euskal Idazleen Elkartearen Literatur Aldizkaria

• 58 •

AINHOA ELORDI AINTZANE USANDIZAGA AITOR ARANA AITZOL LASA
PAKO ABUSTA PATXI ZUBIZARRETA
PELO AÑORGA ENKARNI GENUA ASEL LUZARRAGA ANTON IRUSTA IÑIGITO TXAPELPUK
ARANTZA IBARRA ARRATE EGAÑA ASIER SERRANO GOTZON BARANDIARAN IÑAKI FRIERA IÑAKI ZUBELDIA ANTXINE MENDIZABAL
GARIKOTZ BERSALUZE GOIATZ LABANDIBAR GORKA EGIA BERTOL ARRIETA CASTILLO SUAREZ ENEKO ETXEGARAI FERNANDO MORILLO GARAZI ALBIZUA
AITZPEA GOENAGA ANA JAKA ANDER ODRIUZOLA NAGORE ATELA OIHANA SAN MARTIN
IRATI JIMENEZ ISABEL MILLET ITZIAN ARANBURU JABI FLORTZA JASONE OSORO JOHN ANDUEZA JOKIN DE PEDRO JOKIN MITXELENA JON ARRETXE
KATIXA AGIRRE KRISTINA ETXABE LAURA MINTEGI LUPE LEKUONA JUAN KRUIZ IGERABIDE JUAN LUIS ZABALA JULEN GABIRIA KARLOS ZURUTUZA
JOSEBA SARRIANDIA JOXE MARI ITURRALDE JOXEMARI URTEAGA LUR GALLASTEGI MAITE DARCELES MAITE FRANKO OIHANE FERNANDEZ PADDY PEKALDE
PERU MAGDALENA UXUE ALBERDI NEREA ARRIEN NEREA LOIOLA MAIXA ZUGASTI MARIBEL AJERTZ
XABIER ETXEBERRIA MIREN GORROTXATEGI XABIER MENDIGUREN XABIER OLASO YOLANDA ARRIETA
ESTIBALIZ VIVANCO MIREN AGUIRRE MEABE
MIGUEL ANGE MINTEGI

Idazleak
ikastetxeetan
30 urte

5€



ISSN: 1130244-5

9 771130 244008

HEGATS

Euskal Idazleen Elkartearen Literatur Aldizkaria
• 58 •

EIE Euskal Idazleen Elkartea

HEGATS

Argitaratzailea: Euskal Idazleen Elkartea (idazleak.eus)
Zuzendaria eta koordinatzailea: Patxi Zubizarreta
Diseinua eta maketazioa: Sardina Grafica
Azala: Sardina Grafica
Inprimategia: Antza
ISSN.: 1130244-5
L. G.: SS-359/90





08.

Mariasun Landa

29.

Fernando Morillo



14.

Irati Jimenez

30.

Jasone Osoro

15.

Joan Mari Irigoien

32.


Iñaki Zubeldia

16.

Yolanda Arrieta

34.

Aitor Arana



20.

Pako Aristi

23.

Amaia Hennebutte

39.

Naroa Ogando Ubiria



24.

Asier Serrano

40.

Patxi Zubizarreta

29.

Castillo Suarez

48.

Saio baten prestakuntza

A U R K I B I D E A

HEGATS





30 HEGATS 30

hegaldatzen jarraitzeko

Hegats aldizkariaren ale hau gai zehatz eta mugatu bati buruzkoa duzu: *Idazleak ikastetxeetan* programa. Hain zuzen ere, aurreko hiru hamarkadetan zehar bideratu eta mamitu delako; baina, urteurrenaz gain, ekimena jende askorengana heldu delako, eta badagoelako zer kontaturik, zer hausnarturik, zer ospaturik. Hala bada, honakoak aldizkari monografikoa irudi lezake, baina datozen orrialdeak gainbegiratzea aski duzu ohartzeko *Hegats* honek, benetan, polifonikoa dirudiela: Mariasun Landak eskarmentuaren ahots delikatua dakarkigu —Miel Anjel Elustondoren galderak bitarte— eta ozen entzun dezakegu Asier Serranoren boz kartsua —Uxue Alberdi solaskide. Haiekin batera, hamaikatxo idazleren bizipenak, gogoetak eta proposamenak ere jaso ahal izango dituzu, Naroa Ogando irakaslearen hausnarketarekin batera, guztiak ere ezin interesgarriagoak.

Hegats aldizkari hau entzutekoa da, eta irakurtzekoa, baina kasik ikusi ere egin daiteke. *Idazleak ikastetxeetan* programari ikusgarritasuna eman nahian, EIE-ren eraginez eta EITBko *Artefaktua* literatur saioaren laguntzarekin, erreportaje bat grabatu zen Iruñeko San Frantzisko eskolan eta aperitifia pizgarri baten gisara ikus dezakezu*: bertako ikasleekin —irakurleak, sortzaile gazteak, programaren benetako protagonistak—, Vitori López Martiarena eta Saioa Larrayoz irakasleekin, eta Patxi Zubizarreta idazlearekin.

Ikusi bezala, asko eta askotarikoak dira programaren protagonistak eta eragileak, eta asko eta askotarikoak dira bultzatzaileak eta bilatzen diren konplizitateak: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua, Udal Erakundeak, EIE —eta elkarte lagunak, hala nola Galtzagorri, EIZIE, Editore Elkartea, Euskal Irudigileak...—, Bibliotekak, liburu dendak... Bihoakie guztiei, ibilitakoei eta dabilzan guztiei, batera edo bestera programa honen partaide eta bultzatzaile guztiei, gure eskerrik beroena eta aitorpenik bihozkoiena.

Liburua, Ramón Gómez de la Sernaren esanetan, hegan eginarazten duen ehun hegoko hegaltia baldin bada, argi dago aurreko hiru hamarkadetan Euskal Herrian barrena hegaldi eder asko egin direla, ikusmira eta ikuspuntu aberasgarri ugari zabaldu zaizkigula. Bada, asmo horretxekin datorkizu aldizkari hau ere: hona hemen hogeita hamar hegal, hogeita hamar hegats urtetsu, literaturan barrena gazte hegaldatzen jarraitzeko.

* <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/artefaktua/bideoak/osoal8678637/patxi-zubizarreta-eta-idazleak-ikastetxeetan-ekimena-hilak-diruditen-letrak-mugiartzten-ditu/>



MARIASUN LANDA

«IDAZLEAREN BISITA IRAKURKETA-PROZESUAREN AZKEN GINGA DA»

Testua eta Argazkiak: Miel A. Elustondo – Zaldi Ero

Mariasun Landak gogoan du 1990-91n idazleak ikastetxeetara joateko ekimenaren berri azaltzeko prentsaurrekoa eman zutela. Mariasunek berak proposatu eta gauzarazitako kanpainaren bidez Donostialdeko hamabost idazlek hiriko hainbat ikastetxetara joan ziren. Garai hartan EIEren zuzendaritza-taldekoa zen Mariasun Landa. Patri Urkizu zen lehendakari, Maite Gonzalez Esnal koordinatzaile... Idazleak ikastetxeetan egitasmoaren hazia erein zuten.

Idazleak ikastetxeetan dugu EIEren ekimenik indartsuenetakoa, 360 bisitaldi antolatu dira aurten han-hemengo ikastetxeetara, idazleak ezagutzea eta literatur zaletasuna sustatzea helburu, besteak beste. Asmoari hasiera eman ziotenen artean zinen...

90. urtean gara, eta kontuan hartu behar da 80ko hamarkadan, haur eta gazte literaturaren arloan iraultza handia gertatu zela. Are gehiago, orduko era da haur eta gazte literatura modernoa Euskal Herrian, espainiar estatuan eta beste herrialde askotan. Garai hartan, lehendik zetozen hainbat gauzarekin hautsi zen: autoritarismoarekin, besteak beste. Orduan literatura errealista zen puri-purian, irakurleen kezka bilduko zituen literatura, alegia. Hurrena, «Errealismo kritikoa» etiketa jarriko zitzaion. Hor da, adibidez, nire *Txan fantasma*, ni ohartu gabe, baina garaiko giroari jarraiki idatzitakoa. Errealismo kritikoa horren barruan sartu zuten *Txan fantasma*. Euskal Herrian, bestalde, momentu historiko jakin bat bizi genuen: ikastolen mugimendua finkatu zen, Elkar eta Erein argitaletxeak sortu ziren, irakurlegoa

sortzen ari zen, idazle corpusa osatzen, literatur sistema ere finkatu zen. Lehen aldiz, ikasle-merkatua dago, eta horren ondorioz, ikasmaterial premia. Horrekin batera, idazle corpusa ere bada —hasieran, corpus txikia, baina, guztiarekin ere, badago idazle multzo bat—, eta obrak ere badira... Horixe dugu testuingurua. Horrez gainera, bene-benetako iraultza izan zen Haur eta Gazte Literatura irakaskuntzan onartzea; literatura, alegia. Oso gauza berria zen hori, eta eraginkorra. Merkatu handi bat azaldu zen, eta haur eta gazte literatura erruz saltzen zen.

Eta testuingurua horixe dugula, nola gauzatzen da Idazleak ikastetxeetan kanpaina?

Nik, lehenengo-lehenengo, Eskoriatzako Irakasle Eskolako Nerea Alzola eta Pello Añorga aipatu behar ditut. Nire biografiatxoan, haien izenak agertzen zaizkit. Alegia, nik umeeekin izandako aurrez aurreko lehen topaketa Arrasateko liburutegian izan nuen. 1990 inguruan zen. Zeharo iraultzailea iruditu zitzaigun ekintza hura. «Noiz hurbildu da, ordea, idazle bat irakurleengana?». Ordu arte

ez zen halakorik egin. Esate baterako, niri, txikitan, irakurtzen eta gustatzen zitzaizkidan liburuen egileak etorri izan balitzaizkit, ez nukeen sinetsiko. Eta 1990 hartan idazlea irakurleekin biltzea gauza ezohikoa zen, guztiz harrigarria. Badakigu orain hori guztiz arrunta dela, ohikoa dela idazleak irakurleekin harremana izatea, baina garai hartan, 80ko hamarkadan, pentsatu ere ez halako harremanik!

Gorago esan duzu haur eta gazte literaturaren arloan iraultza handia gertatu zela. 1975ean hil zen diktadorea eta abiarazi ziren hemengo erakundeak...

Aldaketa sozial handia gertatu zen, dudarik gabe, baita pedagogikoa ere. Eta literatur teorian ere, korronte handienek —Harrera teorikoek-eta—, irakurleei garrantzi handia eman zioten. Harrera teoria nagusitu zen, fokua irakurlearengan jartzen hasi zen: giltza zen irakurleak testua nola interpretatzen zuen. Garai hartan jasotako esaldi bat daukat buruan josia: «Ez dago literaturarik irakurlerik gabe». Idaztea da gauza bat, baina idatzitakoa inork irakurtzen ez badu, idazleak idatzitakoa berreraikiko duen irakurlerik ez badago, idazlearen eta irakurlearen arteko elkarrizketarik ez badago, literaturarik ez dago. Izan ere, horixe da literatura, idazlearen eta irakurlearen artean gertatzen den komunikazio-ekintza.

Zer oroitzapen duzu Arrasateko liburutegiko saio hartaz?

Gogoan dut sekulako emozioarekin joan nintzela Arrasatera. Liburutegira heldu eta, hantxe, umetxo batzuk. Biribilean jarri ginen, mahai txiki batzuetan... Oso zen gauza berritzailea, oso. Harrezkero, halako saio pila egin dut, baina hortxe da nire barruan beti Arrasateko hura. Eta, bestalde, ez nintzen liburu jakin batez hitz egitera joan. Hori gero etorri zen. Orduko hartan ez zen halakorik izan. Eta, gainera, hura ez zen eskola, liburutegia baizik, liburutegian ere iraultza bera gertatzen ari baitzen. Alegia, bazegoen kezka, liburutegia nola ireki irakurleei, irakurleak nola erakarri, irakurlea, idazlea eta literatur lana nola jarri harremanetan... Horixe zen testuingurua, eta, horretan, aitzindari izan ziren Nerea Alzola eta Pello Añorga. Eta airtortza zor zaie. Gustura irten nintzen. Ez nuke esango zoragarria izan zela, mugarri gertatu zitzaidala, saio haren «aurreko eta ondoko bat» izan zela nire bizialdian. Ez. Eta desastre hutsa izan zela ere ez nuke esango. Ez. Oso atsegina iruditu zitzaidan.

Hortxe Idazleak ikastetxean kanpainaren hazia...

Hazietako bat. Gero, EIEren zuzendaritza-taldekoa nintzela, kanpaina hau, proiektutxo hau abiarazi genuen —zeren, hasierakoa proiektu txikia baitzen—, eta errealtitatearekin egin genuen topo: haurrekin harreman zuzena genuenok askoz errazago genuen irakurle gazteekin hitz egitea, oso ohituta geunden. Niri, adibidez, oso erraza gertatu zait beti haiekin hitz egitea. Ez dut neure burua behartu behar izan. Irakasle izan nintzen hainbat urtez eta ez nuen haur eta gazteekin harremanetan sartzeko eragozpenik. Jakina, aspaldiko kontuak dira, ez oraingoak, hogeita hamar urte dira oinarrizko irakaskuntza utzi nuela, baina haurrekin harremanetan sartzen trebatuta nengoen, zailduta. Aldiz, idazle asko baliabiderik gabe zegoen haurren munduaren aurrean, edo halaxe sentitzen ziren, baliabiderik gabe, ez zuten giro hura ezagutzen, ez zekiten zer egin ere. Normala!

Nola abiarazi zenuten proiektua? Zein pauso eman zenituzten?

Gogoratzen naiz neuk proposatu nuela asmoa EIEren zuzendaritza-taldean. Hasteko, jarduera Donostia mailan eskaintzea erabaki genuen. Inkesta moduko bat egin genuen EIEren bazkideen artean, nor**k** eman nahi ote zuen izena eskoletara joateko. Liburuak izendatzen ere hasi ginen... gaur ezagutzen

denaren kimua izan zen. Eta oso oker ez banago —dena buruz ari naiz-eta—, hasierako hartan hamabosten bat idazlek eman zuten izena. Donostialdekoak zirela esango nuke, baina ez dakit, ez nago ziur. Eta, esate baterako, ziur nago han zela Andu [Anjel Lertxundi]. Berak ere sekulako eskarmentua zuen irakaskuntzan. Eta beste gauza bat, ziur, esparrua Donostialdea zen, zeren Iñaxio Arregirekin bildu baikinen, Euskararen udal patronatuko arduradunarekin... Pena da prentsan ateratako albiste hura ez aurkitua... Hemerrotekan arakatzten jardun dut, baina ez dut aurkitu. Nik uste *Egin* egunkarian aterako zela. Prentsaurrekoa egin, eta plana aurkeztu genuen.

Nola hartu zuten proposamena batzuek eta besteek?

Hainbeste urte joan dira, oroitzapenak ere ez dira fresko-freskoak, baina esango nuke EIEn, adibidez, ez zidatela eragozpenik jarri, baina bultzadarik ere ez ziotela eman asmoari. Entusiasmo handirik ez inork, baina asmoa gauzatu genuen, eta, gero, jarraipena eman. Tamaina txikian hasi zen, baina begira nola handitu den! Eta nik EIE utzita ere, proiektuak segitu egin zuen, eta hor Maite Gonzalez Esnal pieza inportantea izan zen. Maite eta Begoña Andonegi ziren bideratzaile, eta gaur egun ezagutzen dugun formatura heldu zen. Iñaxio Arregirekin hitz egitera, adibidez, Maite Gonzalez Esnal [EIEko koordinatzailea garaian] eta biok joan ginen. Eta Iñaxio Agirrek ere ez zuen asmoa garbi ikusi. Ideia berria zen... Eta kostata hasi ginen, eta asmoa aurkeztutako urte hartan bertan ere ez ginen hasi. Buruz ari naiz beti. Esan nahi dut, ez zitzaizkigula ate guztiak bat-batean ireki, eskolako atea**k** gainerako zera guztiak. Ez. Baina hasi ginen, nora joan, noiz joan, nor eta nor joan... pentsatzen, diseinatzen, eta oso aurrekontu txikiarekin: hamabost idazle Donostialdeko ikastetxeetara joateko, ezin aurrekontu handia izan! Baina horrelaxe izan zen.

Usteko genuena baino nekezia handiagoan hasi zineten...

Baina normala iruditzen zait. 80ko hamarkadako hura, iraultza txiki bat izan zen, nola irakaskuntzan hala haur eta gazte literaturan. Esan dut ordukoxea dela literatura modernoa, ikasle-irakasleen arteko harremanak... Eta baliteke hori guztia 1968ko maiatzaren ondorio izatea. Gurean, espainiar estatuko Trantsizio politiko garaian ginen, oso garai mugitua, alde askotatik begiratuta. Eta garai hartan nagusitutako literatur teoria ere, Harrera teoria hori, berri-berria zitzaigun. [Hans Robert] Jauss eta beste, fokua irakurlearengan jartzen hasi ziren. Lehenengo, idazlearengan jartzen zen fokua. Egia esan, halaxe ikasi nuen nik literatura ikasle garaian. «Halako idazlea, halako lekutan jaioa, halako bizimodua izandakoa...». Literatura irakasteko modu hura oso pobrea zen, eskasa. Fokua, egilea zen, sortzailea, artista. Gero, estrukturalismoaren bidetik, fokua testura desbideratu zen. Orduan, bost axola egilea, bost axola irakurlea, testua zen ardatz, haren egitura. Eta, hurrena, Harrera teoria etorri zen, irakurlea erdigunean jartzera etorrita.

Eta literatur teoria hartzaileari, irakurleari begira jartzean...

Idazlearen eta irakurlearen arteko hurbiltzea gertatu zen. Eta, horrekin batera, sortze prozesuari buruzko kezka, jakina. Eta orain ere Idazleak ikastetxeetan programaren barruan, horixe izaten da inportanteena, sortze prozesua zertan den adieraztea, zerk eraman gaituen halako edo halako ideiarda, zer den idaztea —gauza misteriosua baita—, eta beste hainbat gauza. Esan dizut aspaldi utzi niola ikastetxeetara joateari, baina gogoan dut galderak betikoak zirela. Oso gauza normala, bestalde: «Nola sortzen zaizu ipuina?», oso zaila erantzuten. Oso. Galdera egiten erraza da, erantzutea baino errazagoa. «Noiz hasi zinen idazten?». Eta noiz hasten da idazlea idazten, edo idazle izan



nahian? Nerabetasun garaian, ezta?... «Nola sortu zaizu ideia?». Erantzutea erraza balitz bezala! «Kaletik barrena nindoan batean, katu bat ikusi nuen, eta...». Ez baita horrela, kableak korapilatu egiten baitira buruan, misteriotsua da, eta, aldi berean, polita. «Zenbat kostatu zaizu liburua idaztea?». Galdera inportantea da...

Honezkero, asmatu dituzu izan litezkeen galdera guztiz gehienen erantzunak...

Asko ibili naiz naiz. Azken urte haietan, *Galtzerdi suizida*-rekin. Oso liburu egokia da inorekin komunikatzeko, zeren hartzen baitut trapu bat, eta botatzen dut, eta galdetzen dut: «Eta galtzerdia zer?». Dena fantasia hutsa da, baina ezin dut esan: «Eta galtzerdia mugitzen hasi zen...». Ez da sinesgarria. Ez, nolabait koherentea izan behar duzu. Zerbait sartu behar da galtzerdiaren barruan hura mugiarazteko. Eta irakurleei esaten diet narratzaileak arazo askorekin topo egiten duela. Eta krokodiloaren ipuinarekin gertatu zitzaidana kontatzen diet, idazten hasi, baina gelditu egin nintzela, aurrera egiten asmatu ezinda, eta urteak joan zirela ipuina bukatu nuen arte. Eta susmoa daukat hor haurrak desanimatu egiten ditudala! Kar, kar...

Desanimatu egiten dituzula? Kar, kar...

Bai, zeren entzuten baitute «...zaila... urteak...». Orduan, hala ere, zera ere esaten diet: «Baina, bitartean, ez atzera ez aurrera nagoenean, beste gauza batzuk idazten jarraitzen dut!». Baina egia da bi ipuin horien kasuan, *Galtzerdi suizida* eta *Krokodiloa ohe azpian*, aurrera nola egin ez nekiela egon nintzela. Irudimenak hasierako bizpahiru kapituluetara eraman ninduen, baina, gero? Nola aurrera egin...? Eta, orduan, aurrera jotzen nola asmatu nuen kontatzen nien haurrei: «Ezagutzen duzue *Gladiator* filma?». Jakina, lehen denek ezagutzen zuten, orain ez dakit. Nire azkeneko lan-urteetan, jendeak ez zekien zein zen Indiana Jones!

‘Gladiator’ filma aipatu duzu, hark lagundu omen zizun zure baitako korapiloa libratzen...

Bai. Behin, askotan bezala, iloba zinema ikustera eraman nuela kontatzen nien haurrei, irakurleei. Eta egun batean *Gladiator* ikustera joan ginela. Eta, bat-batean, etorri zitzaidala ideia: «Jakina, galtzerdi baten barruan puxika sartuz gero, galtzerdia arma bihurtzen duzu, eta borrokan hasi zaitezke bataren eta bestearen kontra, galtzerdia armatzat hartuta!». Izan ere, ni obsesionatuta nengoen ipuin harekin, trapu zahar harekin aurrera egin ezinik! Jakina, arima eman behar nion galtzerdiari, ezin zuen bere kabuz eta besterik gabe mugitzen hasi! Horri heldu nionean, ziztuan idatzi nuen ipuinaren bigarren partea. Egia esaten badizut, ofizio handia neukan...

Haurraren galdera: «Eta ipuina bukatu zenuenean, zer, Mariasun?».

Lan nekosoa dela, baina bukaeran poz ematen duela... eta nire diskurso horren erdian ere esaten dut kirolak ere laguntzen duela, haur eta gazteak oso ohituta baitaude kirolean sufrimendua, nekea, diziplina bizitzen, mingaina aterata ibiltzen... «Eta idazterakoan?», haien galdera, eta nire erantzuna: «Bada, idazterakoan berdin! Idaztea ez da beti zelaian barrena salto eta korri ibiltzea, badira aldapatzarrak, eta amorrarazten zara, eta desanimatzen zara... Baina horiek gaintitu ondoren, satisfakzioa ere handia da». Idazleak ikastetxeetan programaren barruan, horiek denak kontatzen nituen.

Hartzailea, irakurleak, haurrak. Zer esango zenuke irakaslearen egitekoari buruz?

Irakasleak oso gustura egoten zirela hauek denak aditzen, eta, gainera, badakizu, haurrak gelan bilduta, eta beste bat eskola ematen! Kar, kar... Ni ere halaxe egona naizelako ari naiz, ez pentsa! Ni barne, beraz...! Hainbeste urtetan ikastetxez ikastetxe ibili eta gero, ondorio batera heldu nintzen: saioaren arrakasta

Hainbeste urtetan ikastetxez ikastetxe ibili eta gero, ondorio batera heldu nintzen: saioaren arrakasta irakaslearen esku dago.

irakaslearen esku dago. Ez hauraren esku. Irakasleak saioa prestatu egin behar du, eta prestatuz gero, ongi aterako da. Baina lehenengo liburua irakurri behar du, haurrekin landu, irakurketa-animazioa deitzen genuen hura egin, girotu. Hori eginez gero, saioa primerakoa izango da. Irakaslearen lana oso garrantzizkoa da. Inoiz gertatu izan zait —gutxitan, baina inoiz edo behin bai—, galderek ez zutela loturarik konturatzea, edo mamia falta zitzaizela... Alegia, alde aurreko lana falta zen, irakaslearena. Haurrak idazlearekin biltzea ez da nahikoa, ezinbestekoa da aurreko lana.

Badira adin zaileko ikasleak: nerabeak, oro har. Zertan dira haien arreta, interesa eta jakin-mina, adibidez?

Aspaldi utzi nion institutueta eta eskoletara joateari... Adin zaileko ikasleekin aritzea, idazlearentzat ere zaila. Esan nahi dut: gauza batzuk oinarritzakoak dira, idazleak ezin du hantxe jarrita egon, geldirik. Ez. Zutik egon behar du, mugitu, jestikulatu... Inork ez dit inoiz era horretara aritu behar nuela esan, berez ateratzen zitzaidan, eta komunikatzaile baldin bazara, eta irakasle, horiek denak batera konturatu gabe ateratzen zaizkizu. Hargatik esaten dizut zenbait idazleri mundu hori oso arrotza zitzaiola. Askok gertuko genuen ikasleen mundua, baina batzuei oso urrutikoa zitzaien. Behin edo behin, saioaren bat gaizki atera zitzaidan, behin edo behin gogo txarrez alde egin nuen halako ikastetxeren batetik. Saioaren bat, oker, ehunka saio egokiren artean.

Idazleaz den bezainbatean, autoreak neke du saioa bideratzea?

Eskola on bat ematea bezain nekagarri da. Klasea ematea energia huste bat da. Energia behar da. Asko ibilitakoa naiz ikastetxez ikastetxe.... Hemendik kanpora ere ibili nintzen, modu ezberdinean izan bazen ere. Egitasmoa hedatu egin baitzen, eta liburuak gaztelaniaz argitaratzen zizkidaten etxeek —SM edota Anaya, alegia—, han eta hemen, espainiar estatuan barrera ibiltzea eskaini zidaten, baina ezetz esan nuen, ezin nuela. Ezin nintzen Donostian bizi, eta Salamancara edo halako toki batera joan halako ikasle batzuekin hitz egitera. Ez zen posible.

Oraindik orain Jasone Osorok esana digu [EIE elkarrizketak], inportantea iruditzen zaiola ikasleek idazlea ezagutzea.

Harkaitz Canok esaten du neu izan nintzela berak bizian ezagutu duen lehen idazlea, eta idatzi ere izan du hori... Kar, kar, kar.

Gomendiorik baduzu, ikastetxera bidean den idazlearentzat?

Aspaldi galdu nuen lotura... Hogeita bost urte egin nituen unibertsitatean, eta eraman izan nituen idazleak neure klasera. Eta neu ere joanda nago beste unibertsitatearen batera era honetako saioak egitera, libururen bat komentatzera, batez ere. Baina ikastetxeko giroa bestelakoa da... Ez nago batera ziur, baina iruditzen zait badagoela arriskua ekitaldia errekreio edo patio-ordu bezala hartzeko, «ondo pasatzeko» aitzakia izateko, alegia.

Batean, suhiltzaileak; bestean, Gurutze Gorria; hurrengoan, ekologistak; eta hurrengoan gu, idazleok. Eta beti, ondo pasa eta aurrera. Nik uste idazleak harrotasuna izan behar duela, eta horretan nork bere buruaren berri du. «Idazlea naiz, literaturaz hitz egitera etorri naiz, egoki hitz egiten saiatuko naiz haur nahiz gazte hauekin, baina ez ahaztu inork ni gauza oso serioa egiten ari naizela, nahiz eta ni oso sinpatikoa izan, oso atsegina, baina katxondeorik ez, faborez!». Idazleak bere buruari hori ere esan behar diola iruditzen zait, eta ikastetxeetako irakasle eta ikasleek ere gogoan hartu behar dutela.

Baduzu artikulu eder bat saio horietako bat abiapuntu harturik idatzia: 'Eta zu, zer moduz?'.

Artikulu hartan esaten nuena, ezta? Hortxe datoz haurrak, trumilka, algaraka... Eta hori dena baretu egin behar duzu, ikasleak zeure girora bildu behar dituzu, eta zertara zoazen esan. Alegia, ez da, besterik gabe, ondo pasatzea. Jakina, ondo pasatzea ere bada, baina ez hori bakarrik. Galdera batzuk, izan ere! Hura ez da sarao bat! «Eta nobioa daukazu?... Eta katua?... Eta zenbat katu?...». Irakaslearen lana, berriro. Garai hartan, betiko galdera zen: «Zein ekipotakoa zara?». Eta aitortzen dut zenbait galdera onartu beharra dagoela, eta erantzun. «Ez naiz oso zalea, baina, izatekotan, Errealekoa». «Ni ere Errealekoa naiz!». Eta nahikoa da, humanoa zara, hezur-haragizkoa zeu ere, haur eta gazte horiek bezain hezur-haragizkoa, baina horiek esanda, itzuli liburura, argumentura, pertsonaia honetara edo hartara... Liburuaz hitz egin, besterik gabe. Uste dut oso gauza sinplea dela liburuaz hitz egitea, baina oso inportantea: «Zer iruditu zaizu...? Zergatik egin du pertsonaia horrek hori...? Gustatu zait... Niri ez... Zergatik gustatu zaizu, zergatik ez?». Alegia, literatura komunikatzeko modu bat da, gauzak interpretatzeko modu ezberdinak daude, eta modu ezberdin horiek partekatzea, literatura-eskola edo klasea da.

Literaturaz eta irakurketaz ari garela, aski ohitura zabaldua da, ikastetxe askotan, ikasleei hiru hilean behin euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko liburu bana irakurraraztea... Gero, haien gaineko azterketa egitea, kontrol-galderak eginez.

Hori ez da literatura, hori, onenean, hizkuntza da. Irakaslearen tentazioa da literatura klasea hizkuntza bihurtzea: testu azterketa, sinonimo-antonimoak, laburpena... Hizkuntza! Bronka horretan gabilta elkar ezagutzen dugunetik, ezta? Kar, kar, kar...

Zulora baino lehen, neska ttiki hark galdetu zizuna, Mariasun: 'Eta zu, zer moduz zaude?'.

Kar, kar, kar... *Jaiegin* batean argitaratu zen artikulua, 1991n, eta *Txikiaren handitasuna* (Erein, 2018) artikulu-antologian bildu dut. Bai, gogoan daukat saio hura. Eta ume txiki hura: «Eta zu, zer moduz zaude?» Hau eta hori eta hura, bateko eta besteko galdera, eta, bat-batean, oinarritzakoa, funtsezkoa: «Zu, zer moduz?». Ukitu egin ninduen.



Eta zu, zer moduz zaude?

Normalki trumilka eta builaka daude gelan. Edo isiltasun behartua egiten da idazlea beraien gelara sartzen denean. Eskuarki, irakasle arduratsuek ondo portatzeko eta zintzo egoteko esan diete, idazle bat dela beren aurrean egongo dena, irakurri duten ipuin horren edo bestearen egilea dena, eta beraiek ez dakite oso ondo idazle bat zer den, ez dute inoiz bere piurarik ikusi ahal izan eta harritu egiten dira emakume normal eta arrunt baten aurrean aurkitzen direnean.

Hasteko, gehienei ez zaie sekula burutik pasa irakurri duten ipuinak egile bat duenik, istorio hori norbaitek asmatu duenik, eta horrelakorik pentsatu badute ere —eta auskalo zer ez ote duten hausnartzen haurrek!—, idazle hori hilik dagoela uste dute.

Beraz, hasieran, oso tente eta erne egon ohi dira idazle delako pertsona horren aurrean, eta hark agurtzeko hitz goxo batzuk esan arte ez dira erlaxatzen, ez dira beren aukietatik gehiegi mugitzera ausartzen. Une horretan, gupidarik gabe aztertzen dute eskolara joan zaien pertsonaia ezezagun horren aurpegia, bere janzkera, bere jarra... ea *idazletasun* famatu hori xehetasun estrafalario batean antzematen duten, ea zerbait berezia eta liluragarria duen, eta besterik ezean, idazle horri zenbait galdera egiteko prestatzen dira.

Ia beti koaderno bat dute lagun. Eta hantxe barruan, galdekizun batzuk idatzita, kostata idatziak, asko pentsatutako galderak baitira: «Noiz hasi zinen ipuinak asmatzen? Asko gustatzen al zaizu idaztea? Zein da idatzitako ipuinen artean gehien gustatzen zaizuna?...». Galdera itzuriezina dira, aukera guztietan errepikatzen direnak, bankete baten aurrean hartzen diren aperitiboan antzera.


Geroxeago, ditzosozko koaderno horiek ahaztuta, beren galderak gero eta zehatzago, bihurriago, bilakatzen dira: «Zergatik izar hori berdea zen eta ez gorria? Non ikusi duzu negar egiten duen perretxikorik? Eta Txan fantasmak zergatik ez zuen Karmentxu arraroetxetik askatu?».

Badaude idazlearen kontu korronteaz arduratzen direnak: «Asko irabazten al duzu ipuinak asmatzen?». Baita bihotzaren gorabeheraz kezkatzen direnak ere: «Nobiorik al duzu?». Baina ordurako txanda hartu beharra izaten da, kuriositatea ez baita nonbait pazientziarekin ondo uztertzen, eta idazlea ezker-eskuinera zuzentzen hasiko da, kaleko zirkulazioaz arduratzen den udaltzain baten antzera.

Denbora aurrera joan heinean, nekearen seinale batzuk sumatzen ditu idazleak: haur batek besteari bultza egingo dio, batzuk aukietatik altxatzen hasiko dira, algara hotsa lehertzeaz... saioa bukatzeko tenorea, alegia. Eta une horretan, hain zuzen, izkina batean dagoen neskatilak eta ordura arte ezertxo esatera ausartu ez denak, eskua altxatzen du azken galdera egiteko asmoz: «Eta zu, zer moduz zaude?»...

Idazlea ez da hasieran galderaz ondo jabetzen, errepikarazten dio berriro neskatila lotsatiari eta emozio handia sentitzen du konturatzean haur hori berari buruz galdezka ari zaiola, hura ez dela idazle pertsonaiari zuzendutako galdera, bere aurrean dagoen emakume gizagaixoari zuzendutakoa baizik. Eta ondo, bai, ondo dagoela erantzuten dio ziurtasun handirik gabe, neskatilaren begietan ispilu baten aurrean bezala bere burua biluzik ikusten duen bitartean.

Mariasun Landa (1990)



IDAZLEAK IKASTEETXETAN

JOAN MARI IRIGOIEN

Lehengoan, Patxi Zubizarretaren email bat jaso nuen, non eskatzen baitzidan zer-nolakoa izan nuen neure esperientzia, ikastetxeetan gidatu nituen solasaldietan. Bikaina izan zen, Patxi, oro har! Ahalegintzen nintzen, hori bai, solasaldiak dibertigarriak izan zitezten: serioak ere bai, jakina!

Primeran oroitzen dut lehen anekdota.

Amak kontatzen dit—kontatzen zidan, alegia, orain dela urte batzuk hil baitzen—, ni jaiotzeaz nintzela, azpikoz gora egin nuela haren sabelean; etorri zen espezialista, aitaren lagun-mina zen Arrillaga jauna, zeinek bai baitzekien gure aitaren literaturazetasunaren berri, umontzi gozo hartan berregokitu ninduen, gerriko estu batekin gogor lotu, eta esan zion amari: “Orain bai, zuzen etorriko da”, baina iritsi zen jaiotzeko ordua, eta orduan ere azpikoz gora egin nuen, aldrebes jaiotzean. Aitak zangoak aurretik nekartzala ikusi zuenean, pentsatu zuen: “Futbolista”; Arrillaga jaunak ez zuen ezer pentsatu ez ezer esan, hain baitzegoen harrituta... baina amari oinazeak pasa zitzaizkionean, zerbait esan behar eta, esan zion aitari: “Aizak, Roman, mutil hau idazlea datorrik... baina surrealista”; amak ez zekien zer zen surrealismoa, baina beste askotan bezala, ulertzen



ez zituen hitzak ulertzeko modu berezia zuen, eta aurrean zituen bi gizonei esan zien: “Behin okertutako pagoa ez da inoiz zuzentzen”. Arrazoi zuten hirurek.

Mundura aldrebes jaiotze nahi izateagatik hilzorian egon nintzen, arnasestuka —mesede ederra orduan hil izan banintz, irakasleek aginduta *Poliedroaren hostoak* edo *Lur bat haratago* irakurri ezinean zabiltzatenontzat, ezta?—, baina leihora atera nindutenean aire bila, zeru urdin mugagabea ikusi nuen goian, haize-kolpe baten fereka nabaritu masailean... eta, arnasa neureganatuz, hura ez zela hiltzeko ordua erabaki nuen.

Beraz, hortxe dituzue dagoeneko nire literaturaren konstanteak izango diren bi ardatz: heriotza eta espazio infinituen beharra.

Hortik aurrera, negar eta nahigabe orenen gainetik, oso haurtzaro zorionsua oroit dezaket, neure jaioterrian, Altzan, beti korrika zelaietan, kilkerren bila edo ezkailu arrantzan, edota futbolearen edo pilotan frontoian.

Etab. Etab. Etab.

NIGATIK NOA

IRATI JIMENEZ

Gernikako institutuan jakin nuen lehen aldiz zer zen irakurle nerabeekin nire liburuez hitz egitea. Saio hartan gertatu zen ia guztia ahaztu dut, baina gogoan daukat literaturatik bizitzeko asmoa ote nuen galdegin zidatela eta lehen aldiz egin behar izan niola neure buruari galdera fundamental hura. Orduetik ez dakit zenbat ikastetxetan egon naizen hamalau, hamabost urteko neska-mutilekin eta haien irakasleekin, eta ez dakit ze etekin ateratzen duten hamasei, hamazazpi urteko ikasle horiek nire saiostatik, baina irakurleak maizegi ahazten dituen literatura honetan ez dut uste inork egiten duenik haien irakasleek baino ahalegin handiagorik irakurzaletasunaren suak bizirik mantentzen saiatzeko eta, niri dagokidanez, ez dut inon topatu publiko hoberik nire literatura ebaluatzeko, idatzi ditudan liburuetan zer idatzi nuen jakiteko, ulertzeko eta epaitzeko.



Institutuetan beti egin dizkidate galdera normalak, logikoak, ebidenteak, eta inportanteak. Irakurle helduago askok eta kritiko literario gehiegik galdu dituzten gaitasunak dituzte: *ez dut ulertu* edo *ez dakit ulertu dudana* esanez gai dira gaizki eginda dagoena seinalatzeko, *dena ez zaiela gustatu* esan beharrean zer

gustatu zaien eta zer ez zaien gustatu esateko gai dira; eta sormen prozesuari buruzko hipotesiak egiten dituztenean, erabaki literarioak esplikatzeko dituzten hipotesi pertinentek izaten dira. Urte asko pasa dira Gernikako saio hartatik eta orduan sentitu nuena orain zalantzarik gabe konfirmatu dezake: institutuetan inork literaturaz ezer ikasten badu, idazleok gara.



HAMAIKATXO IDAZLE, HAMAIKATXO GELA, HAMAIKATXO URTE

YOLANDA ARRIETA

Jada desagertuta dagoen 1991eko *Bapore Sariak* ekarri zuen nire izen-abizenen ondorengo *idazle* etiketa.

Etiketari erantzun egin behar zizaion, ordea. «Beste zerbait badaukazu?», galdetu zidaten. Nik baietz. Gogoan daukat neure buruari sartu nion presioa: «Eta ez bada ateratzen?». *Idazlearen* itzala zen:

«Asmatu egin behar dut eta ez dakit gai izango ote naizen».

Hogeita hamar urte igaro dira ordutik eta berrogeitik gora lan argitaratu dut harrezkero. Itzalei eta mamuei aurre egiten ikasi dut, zer erremedio, baina orri zuriaren aurreko izuak hor jarraitzen du, eta baita lan bukatuaren ondorengo galderak ere: «Gustatuko ote zaie?».

Lan onek ez omen dute azalpenik behar, baina niri asko lagundu izan dit nire lanei buruz ahoz aritzeak. Hitza ahotsez hazten dela deskubritu baitut.

Ez da plaza apartekorik behar izan horretarako. Geletan izan da.

Bostehun ikasleko zentroetan eta hogeit laguneko eskola txikietan.

Hitza ahotsez hazi, begiradez bete eta keinuz berotzen dela jabetu naiz. Ozen irakurri, aditu, errepikatu, galdetu, beste era batera irakurri, emozioa bilatu, tonuan arakatu, *tempoan* sartu, azalpenetan asmatu, parekoen begiradetan, baietz, ulertu dutela sumatu...

Hitza ahotsez hasi, hezi eta hazten dela jabetu naiz. Eta hitzak pasioa maite duela. Eta pasioak, begia, eskua eta irribarrea dantzan jartzea.

Ohartu naiz hitzak ezinbestekoa duela pertsonaren ekina. Pertsonok ematen diogula bihotza, usaina, gustua, doinua, arnasa. Eta umeei eta gazteei dagokienez, heldu guztiok garelara bitartekariak, izan irakasle, izan guraso, izan idazle, kontalari, hezitzaile edota zaintzaile.

1992an hasi nintzen idazle lanetan eta, orduantxe, baita ere, letren bitartekaritzan, Idazleen Elkarteak estreinatutako *Idazleak Ikastetxeetan* programari esker.



«Ikasleek zure liburua irakurriko dute eta ondoren zeu joango zara haiekin hitz egitera», esan zidaten EIEEn bazkideku nintzenean. Ideia bikaina iruditu zitzaidan. Are gehiago, ordainduta zegoela esan zidatenean.

Harrezkero, ez dakit zenbat eskola izan diren, ez dakit zenbat saio, zenbat urte, zenbat kilometro... Saioen kuota ez da gehiegi igo, galdera asko antzekoak dira, liburuak erosteko arazoez jarraitzen dugu, entretenitzaile-lanetarako erabiltzen gaituzte askotan, eta oraindik bada, «A! Irakurri egin behar zen?», galdetzen duenik ere, gelan sartzen garenean. Baina, tarteka, lilura-haziak eta ilusio-kimurak loratzen ikusten ditut ikasle-irakasle-idazle arteko bilkuretan. Eta ez da gutxi.

Hala bada, gabeziak gabezia, inertziak inertzia, pandemia, pantailak, moda-aldaketak gorabehera, ekimenaren arrakastarako hamar osagai izendatzen saiatuko naiz. Agian hamaikatxo ere izango dira...

0-MOTORRAK PIZTU

Zentzumenak, irudimena, oroimena eta emozioak. Denak daude geuregan. Zentzumenak atek dira, kanpoko informazioa guregana sartzeko atek. Informazio horrek zerbait eragiten du guregan, eta sentsazio-emozio nahastura horrek bata edo bestea imajinatzeraz garmatza. Baina ez dugu hutsetik imajinatzen, geure bizipen propioak oroimenean gordeta daudelako. **Oroimena eta irudimena** gure «ganbaran» bizi dira. Hantxe sortzen dira ideiak.

Oinarri horretatik abiatzea gure motorrak piztea izango da.

1-ZER GAREN GOGORATU

Helduon kasuan, **bitartekariak** gara, emozio-itzultzaileak gara, ikaslearen barne munduak lotzen eta adiskidetzen laguntzen dutenak gara: «Etxea» gara.

Literaturak espazio-denboran bidaiatzeko aukera eskaintzen digu, eta bidaiatzeko banean darama gorderik «etxea»ren muina: nondik abiatu, nora itzuli.

Intimitate-gune sendo batek letren bidaia prestatzen lagunduko digu. Helduok txofer eta bitartekari.

2-INTIMITATE-GUNEAK ERAIKI: ERRITUAK

Zentzumenak, irudimena, oroimena eta emozioak intimitatean bizi dira, baina **intimitatea** lantzea **ekintza soziala** —ere— bada, alegia, partekatu, landu eta osatu egin daiteke.

Kontaktak, irakurketa ozenak eta isilak, tertuliak, dramatizazioa... hitzen bidez intimitatea lantzeko ohitura osasuntsuak dira: esanahietan bidaiatzeko aukera eskaintzeaz batera, idazlea ikastetxera joan aurreko lilura ereiten laguntzen dute.

3-TARTE BAT HARRIDURARI

Ipuinak mundua ulertzeko adibideak dira; olerkiak, ikuspegiak zabaltzeko aitzakiak. Literaturak «bestea» deskubritzeraz garmatza.

Letretan ohitutako ikasleak harriduraz deskubrituko du **bestea eta norbera** truke-joko bat baino ez dela.

4-TARTE BAT EDERTASUNARI

«Hortxe, hutsaltasun horretan, eskariari jaramonik egin gabe, **hitzak beste gauza bat egiten** hasten diren leku horretan bizi da Edertasuna». Halaxe dio Maria Teresa Andruetto idazleak.

Leku horretara joateko bideak isiltasuna maite du.

5-TARTE BAT ISILTASUNARI

Hizkuntza musika da. Musikan notak eta isiluneak daude. Nola **preziatu hitzen doinua**, zarata denean eguneroko protagonista?



Nola preziatu hitzen doinua, zarata denean eguneroko protagonista?

6-TARTE BAT ELKARREKINTZARI

Hitz-jokoa da giltzarria. Isilunea, **lau begi eta hitza**. Eta ahotsa. Begirada, eskuak, keinuak eta ahotsa. Hitzaren Edertasuna. Unearen Edertasuna. Hitzaren musika eta Edertasuna. Hitzaren fereka eta Edertasuna. Hitzaren leuntasuna eta Edertasuna. Ahotsa.

7-TARTE BAT HITZARI, AHOTS BILAKATZEKO

Komunikabide azkarren garaiotan, agian ondo legoke estimulu eta informazio adina isilune eta isil-gune ere sortzea gure inguruan, sentitutakoaz **hausnartu**, harritu gaituenaz **jabetu**, eta inguratzen gaituen Edertasunaz **gozatzeko**. Isiluneak eta isil-guneak, hitzaren balioaz jabetzeko. Ahotsa berreskuratzeko.

8-IKERTU, BILATU

Hiztegiak gertu, hitz berriak ezagutzeko. **Liburuak** inguruan, nork-non-noiz-nola-zer egin duen bilatzeko. **Detektibe-sena** piztuta beti.

9-BIZITZA KONTATUZ, BIZITZA BERRERAIKI

Irakurgaiak berridatzi egin daitezke: hasierak aldatu, bukaerak moldatu, norberarengana ekarri eta biziberrituta itzuli besteari. **Idazle izatera jolastu**, letrekin eta esanahiekin adiskidetzeko.

10-HITZA OSPATU

Elkarri kontatu, liburu osoa txandaka irakurri besteen aurrean, batak musika jo eta besteak zati bat erreztatatu, batak dantzatu eta besteak hari begira ozen irakurri. Hitz berriak asmatzera jolastu... **Egunero**. Liburuaren egunari itxaron gabe.

11-LIBURUA BIZI

Letren helburua birgogoratu: zerbait kontatu, zerbait jaso, zerbait partekatu.



YOUTUBERRA IZAN NAHI DUT

PAKO ARISTI

Esan didate “Idazleak ikastetxeetan” programak 30 urte bete dituela, eta ezin sinetsirik nago. Lisatu ederra hartuko luke gure aurpegiak 30 urte atzera eginen bagenu! Hori ezin denez, oroimenarekin bidaiatuko dugu.

Internet aurreko garaia ari gara, eta mugikorraz zer esanik ez! Poliki-poliki ari zen hedatzen ordenagailua, nik geroxeago arte jarri ez banuen ere. Google Maps ez zegoen, Via Michelin ere ez, zitak telefono finkoan eginda hor abiatzen ginen, uztaidun mapa handi bat hartuta, auskalo zein herritara; eta han, tabernetan galdetuz asmatzen genuen eskola aurrera iristen. Zer aurkituko genuen, beti zen misterio bat. 20 ikasle, edo 60, zerbait prestatua zutenak, edo ezer ez, irakasle saiatuak, edo potrozorri galantak. Abentura bat zen, abentura pedagogiko bat: asko ikasi dut umeengandik 30 urte hauetan.

Gauzarik agerikoena: bizi duten guztia xurgatzen dutela inkontzienteki. Idoloak, adibidez. Julen Guerrero miresten zuten garai batean, Bizkai aldean batik bat, gero Messi, gero Ronaldo, orain youtuberrak, gero auskalo. Handian zer izan nahi zuten galdeturik, asko aldatu da erantzuna. Mutilen lehen erantzuna futbolaria izaten zen, puntakoa, noski, milioi asko irabazten dituztenetakoa. Edo autoetako pilotuak; Fernando Alonso zebilen karrerak irabazten. Gero injineruak, arkitektoak. Batzuk aberatsak, beste barik, bakarren batek polizia; eta behin, eskolako txistosoia edo izango zen, batek bota zuten: Nik korruptoa izan nahi dut!

Neskek beste sektore batera jotzen zuten: andereñoa, ile-apaintzailea, erizaina. Baina hau aldatuz joan da, eta orain esango dizute: zientifikoa, albaitaria, futbolaria, medikua, hegazkin-pilotua eta polizia ere bai, bakarren batek. Galderak ere aldatu ziren: une batean, nire *Zazpi pirata* liburuan denak mutilak direla eta, ea neskarik zergatik ez zen agertzen hasi zitzaizkidan



galdetzen. Urtean 20 bat eskola bisitatzen banituen, ia inor ez zen agertzen idazle izan nahi zuenik. Ez ziren gure bizi mailaz fio. Ea zenbat irabazten nuen galdetzen zidaten, zer auto neukan, eta hor, ni beti bigarren eskukoekin ibilia, txasko handia hartzen zuten.

Behin bero egiten zuen, eta alkandora ireki nuen. Azpiko kamisetak «Presoak etxera» jartzen zuen, ni ohartu ere ez, eta guraso batzuk kexatu zirela jakin nuen. Ezin dute lasai bizi. Gurasoak baitira irakasleen buruhauste, ez umeak. Handik urte askotara, berriaz, kontatu nien nik ez neukala nire libururik etxean, denak kartzelan zegoen lagun bati bidali nizkiolako. Kartzelan zergatik zegoen nahi zuten jakin, ETA aipatu nien, lagunak zuzeneko loturarik ez zuela izan esateko. Eta orduan, ez zait ahaztuko, 8 urteko ume batek galdetu zuen: “Zer da ETA?”. Garaiak aldatuak ziren.

Bin Laden hil zutenean ere eskola batean nintzen. Gaia atera nien, eta norbait hiltzea gaizki dagoela deliberatu zuten. Beno, batzuek “segun” esan zuten. Bin Laden hiltzea ongi zegoela, gaiztoa zelakoz. Eztabaida luzea izan genuen etikaz, bortxakeriaz, baina ohartu nintzen politika zer den ederki zekitelara, ederki bereizten zutela biolentzia estatuak administratzen duenean, edo norbanakoak.

“Segun” hitza asko erabiltzen dute umeek. Irakurtzea gustatzen zaien galdeturik, bai, ez, eta askok “segun” erantzuten dute. Adieraziz nahiago dutela eurak aukeratutako liburua, derrigoritutakoa baino. Askatasuna maitatzen ari diren seinale.

Milaka eta milaka kilometro izan dira, baina inoiz matxura bat edo istripu bat ez dut izan. Aingeru batek babestu nau. Joan naizen lekurik urrunena Tuteran izan da: orduan jakin nuen eternitatea zer den. Ordu bat, bi, hiru... eta ez nintzen iristen, “Zaragoza 80

km” ikusi nuen arte; demonio! Eskuinera zihoan lehen bidexka hartu eta iritsi nintzen euskararen azken gotorlekura. Holakoetan euskararen misiolari bat sentitzen nintzen.

Asaldatzen dira nire liburuetan biraoak (edo haientzat “hitz itsusiak” direnak) agertzen direlako, hitz horien funtzioa eta errealismo ahalmena agertzen didan arte. Eta miresten dute nire haur literaturako pertsonaiak gurasoen kontrolik gabe bizi direla ikustea. Tontoak ez dira, hiper-kontrolatuak sentitzen dira gaur egun. Lehen ez zen horrela, esaten diet. Jo, ze ondo, diote etsipenez.

Deigarria egin zait, eta beste idazle batzuek ere esan didate, nire (gure) liburu zaharrenak daudela zirkuituan; berriak, gutxi. Irakasleen nagikerian baino, nahiago dut pentsatu gure literaturak baduela denbora gainditzeko ahalmena, eta umeak jaino baino urte asko lehenago idatzitako liburuak interesgarri zaizkiela gaur egun ere.

Urteotan ikusi dudana galera liburuak erosteara izan da. Lehen bakoitzak berea erosten zuen, kultura hori zegoen, eta liburuetan sinatzen nuen. Orain ia ez dut libururik ikusten; paperetan sinatzen dut. Eskolak erosiak dituen 20 liburu darabiltzate urtez urte, eta gure salmentei kalte larria eragin dio kultura berri honek.

Bestela kexarik ez. Idazle profesional gisan bizitzen izugarri lagundu dit “Idazleak ikastetxeetan” programak, eta hamarkadotan Euskal Idazleen Elkartearen izan diren langile guztiei zorionak eman nahi dizkiet.

NIRE LEKUKOTASUNA

AMAIA HENNEBUTTE

Haurren buruan, zer ote da idazle edo sortzaile izatea? Ze itxura dauka? Pertsona «normala» eta arrunta al da, edo beste planeta batetik etorritakoa? Zoin dira umeen aurreiritziak? Eta, ondorioz, garrantzitsua ote da haurrek idazleak topa eta ezagut ditzaten, zuzenean eta egiazki?

Ni, album-ilustratuen idazle eta ilustratzailea naiz. Nire hamabosgarren albuma argitaratu zen joan den urtean. Nahiz eta nire lanak lehenik haurrei zuzendu, denendako idazten eta ilustratzen saiatzen dut.

Eskoletara joateko gomita jasotzen dudanean, beti plazer handia sentitzen dut, iduritzen baitzait «nire» irakurle gazteengana hurbiltzen naizela, eta harreman zuzena izanen dudala beraiekin.

Ikasgeletara hurbiltzen naizenean, kuriositatez beterik banoa, baina aldi berean, nire baitan beldur tiki bat sendi dut, kezka bezalako zerbait, ea nola jaso eta preziatuko dituzten nire lanak...

Orokorki, gogoan atxikitzen dudan lehen oroitzapen nabarmena, beraien kuriositatea da : «*Zendako idazten dudan? Nola egiten ote dut ideiak izateko? Nola egiten ote dut «hain ongi» marrazteko...?*» Beraien oharretan, beti sendi dut ezberdintasun ikaragarri bat, edo amildegi bat balitz bezala beraien eta nire artean : NI ARTISTA banintz bezala, eta beraiek EZ. Diotenaren arabera, beraiek ez dakite idazten, ez dakite marrazten, ez dute ideiarik, ez dakite deus...!

Alta, kontrakoaz konbentzituta nago: haurrak berez artistak dira, eta pizten zaizkien gogoei eta ideiei lotu behar lukete, eta jalgitzen zaien lehen inspirazioei lotu behar lirateke, duda izpirik gabe. Picassok horixe bera zioen: «*Haurrak, berez, artistak dira*» eta bere bizi lan ikerketa guztia, haurrak bezala tintatzea eta haurrek duten askatasun osoa berraurkitzea izan du helburu nagusi. Hau da transmititu nahi diedana!

Ni sormen munduan sartzen ausartzen naiz, besterik ez. Haurrak berez mundu honetan dabilta beti, sormen eta irudimen munduetan errazki sartzen dira ere. Ondorioz, aitzina jo dezatela, eta gizarteak eta helduek buruan sartu nahi dizkieten normak eta «arte arauak» ahantzi ditzatela... Idazle eta ilustratzaile izaten jarrai dezatela... eta guk helduok, horretara bultza ditzagun, askatasun osoan.

Horregatik, aldi oro ikasgeletara noalarik, beti saiatzen naiz umeak, «ikusle» posturatik, «aktore» edo «sortzaile» posturara pasaraztea. Irakurketa bat eskaintzen diet, edo parentesi poetiko bat, eta ondoren, beraiek ekintza artistiko batean sarturik, sortzaile eta artista izatera bultzatzen ditut. Idazketa edo ilustrazio tailer batean parte harturik, ohartzten dira artea beren baitan dutela, irudimen joko bat dela, eta ez dela «goi-maila» jende batzuei edo «elite» bati erreserbatua.

Atxikitzen dudan bigarren oroitzapen azkarra haurrek beren baitan duten idazleen aurreiritzia da. Ohartu naiz beren baitan,



idazleak beste planetako gizakiak direla, zahar-zaharrak, doaika luma bat eskutan, eta kandela baten azpian idazten ari gauez, gaztelu zahar-zahar batean, oihan edo mendi baten puntan...

Halaxe gertatu zitzaidan, 6 urteko ikasgela batean sartu nintzenean, neskatxo batek bere baitatik oihukatu zuelarik: «*Baina, bera da Amaia Hennebutte???* Oh, baina egiazki ez da HAIN ZAHARRA!!!». Pentsa: sei urteko neska batendako, berrogeita bost urteko emazte bat jada zoin zaharra den!

Eta neskatxo honek ez ninduen hain zaharra atxematzen? Ondorioz, zer esan nahi ote du horrek? Irudikatu zuela, atso zahar bat, laurogeita hamar edo ehun urtekoa bederen, erdi elbarritua, ile xuri-xuriak eta bizkarra makurtua!!! Adibide honek erakusten ditu haurrek dituzten idazleerekiko aurreiritziak! Eta behin baino gehiagotan gertatu zait hori!

Horregatik idazleak eta ilustratzaileak ikasgeletan sartu behar dira: haurrak ohartu behar dira idazleak eta sortzaileak, beraiek bezalako jende arrunta eta sinpleak direla, berezitasunik gabekoak. Azken finean, gizaki hutsak garena gu ere, besterik ez.

Bestalde, idazleak eskoletan sartzean, erakasleei ere on egiten zaiela ohartzten naiz: gehienetan harriturik egoten dira haurren arretaz eta interesaz. Beraien egunerokotasunari aldi guziz aire berri eta fresko bat dakar idazleak.

Ondorioz, ikasle eta irakasleekin harreman zuzen hori ezinbestekoa iduritzen zait haurrek literaturari lotzeko, haurrak biharko idazle eta ilustratzaile izateko gogoak pizteko, eta sorkuntza mundua ez dela elite bati bakarrik idekia biziarazteko.

ASIER SERRANO

ZAURIA ETA POTENTZIA

Testua: Uxue Alberdi

Gogor hartzen du bere burua, “ozpin hutsa naiz” dio, “antisoziala”, “desastre bat”. Bitartean, irribarre egiten du eta, aldian-aldian, gaztaina koloreko begiak pizten zaizkio begizuloen gainetik: “gaizki egiten dut lo”. Hori ere konpartitzen dugu: insomniorako joera. Horretaz gain, geografia bat dugu geurea: Eibar eta Elgoibar; eraitsitako taberna batzuk: Ilbera eta Txuri-beltz; ibai zikin bat; bizikleta ugerrak. Bi ihes-puntu ere trazatu ditugu noranzko berean: literaturarakoa eta kostalderakoa.

Maiatzaren 10ean eguzki-beteko eguna egiten du Argiñanoreneko terrazan. “Jar ezazu drogak hartuta etorri naizela”, esaten dit. Eskumuturrekoa darama eskuineko eskuan. Minak sufritzen ditu ebakuntza baten ondorioz. Itsaso hotz-hotzean bainatzeak laguntzen dio, “seguru nago oinazea zangoan banu, idaztean ahaztu egingo litzaidakela, baina, tamalez, ukalondotik hatz puntetara dut min. Ezkerrarekin idazten ikasi beharko dut”.

Aitortza egin diot: *Idazleak ikastetxeetan* programaren bidez ezagutu nuen nik Asier Serrano Elgoibarko institutuan, 2000. urtean. Nik hamasei urte neuzkan eta Asierrek hogeita bost. Saio haren ostean erosi nuen *Bada hiri gorri bat* (1997, Elkar) liburua eta, handik gutxira, Loreleiren kontzertuan izan nintzen Elgoibarko Iratxo tabernan. Buruz ikasi nituen hitzak. “Benetan?” harritu da, baina memorian aztarka, “nik gogoratzen dudana da Elgoibarren bizi den nire koinatak, edo Jasone Osorok, ez nago ziur, esan zidala herrian bazela idazten zuen neska gazte bat, eta Barren astekarian egin zioten elkarriketa batean esan omen zuela Asier Serranoren letrak gustatzen zitzaizkiola. Zu zinen?”

2000. urtean hasi zen *Idazleak ikastetxeetan* programan parte hartzen, ikasleen erreferente izango zen idazle gazte bat behar zutelara. Gitarra hartuta joaten zen ikastetxeetara: “libururik ez eramateko esan zidaten”. Sormen-prozesuaren nondik norakoez aritzen zen, “sekulako astakeriak esaten nituen hezkuntzaren kontra, irakasleen kontra...”. Oraindik ere, gitarra hartuta joaten da gehienetan eskoletara, *Literaturatik musikara* izeneko hitzaldia ematera. 200. saiotik gora egin ditu 22 urtean. “Orain

lotsa ematen dit, nire berrogeita sei urterekin, autoa aparkatu eta gitarra bizkarrean eskoletara joateak”.

Amamari egin zion kanta bat abestu ohi die ikasleei, hura hil ostean konposatua, eta nola sortu zuen azaltzen die. “Biloba izatera *jaisten* naiz berriz, une hartara bidaiatzen dut, eurak orain dauden momentura itzultzen naiz”. Ikasleak hunkitu egiten direla dio, “benetako bizitzarekin konektatzen dutelako. Pertsona horiek ez dituzte sekula berriro hamazazpi urte izango, eta hamazazpi urterekin esan daitekeena hamazazpi urterekin baino ezin da esan”.

Gogoeta horrek, Scott Fitzgerald-engana eraman gaitu, Asierrek rooibos tea eta nik kafe deskafeinatua izotzarekin –insomneen prebentzioak– hartzen ditugun bitartean. Fitzgeralddek honako aholku hau ematen zien idazleei: “Inspiratu zaitez bizitzan, ez artean”.

Asier Serranok haragian inprimatuta ditu gazte garaiko haserrearen –ezin jasan zuen “helduaroaren traizioa”– eta baltsamoak: “idazketa eta beste droga batzuk”. Irakasleen eskolak ahaztuak dituen arren, gogoan ditu ikasle garaian irakurri zituen liburuak, antzokietara egingako irteerak eta ikastetxera bisitan joandako kultur gileen oroitzapena: Amaia Zubiria, Joseba Tapia, Gontzal Mendibil, Itxaro Borda... “Auxtin Zamora etorri zen behin, eta orduan sortu zitzaidan poemak errezitatzeko grina”. Kulturgile bat gelara sartzen zenean “honek badu zerbait irakasleek ez dutena” pentsatzen omen zuen. Orain bera da irakaslea, Euskal





Literatura irakasten du Iralen, eta badaki zeinen beharrezkoak diren ohiz kanpoko estimuluak: “ikasleen benetako izaera, barnean dutena hor ateratzen da”.

Gaztetan ikasle txarra zen, “oso alferra, errebelia lerro baten jabe nintzen, ez dakit nori erakutsi nahian inor baino txuloagoa nintzela”. COU bukatu zuenerako, bazekien idazle izan nahi zuela. “Nire filosofiako irakasleak aitari deitu zion bokazioa ikusten zidala eta idazle-karrera egin beharko nukeela esanez. Lehen, idazlegaiak Parisera eta Londresera joaten zirela esan zion, eta ea zergatik ez ninduen New Yorkera bidaltzen. Aitak ez zion kasurik egin, noski”. Marketinga ikasten hasi zen orduan, baina laster utzi zuen. Hemezortzi urterekin, urte sabatikoa hartu eta Bernedon bakartu zen idaztera, “desterrura joan nintzen kontu politikoak eta maitasun afera bat” tarteko, baina, idazle izateko determinazioarekin. “Aitak ez zuen ulertu, ez zidala barkatuko esan zidan”.

Garai hartan, herrikide batek iritzi artikulua bat idatzi zuen Eibarko *Eta Kitto* aldizkarian, Asierren idazle izateko hautua eta Bernedoko bakarraldia kritikatu: «Gupida diet zure gurasoei», bukatzen zuen”. Gauzak zer diren, artikulua hura, haustura baino, zubi izan zen gurasoen eta idazle izatea erabaki zuen seme gaztearen artean: “Aitak telefonoz deitu zion artikulua idatzi zuenari, eta esan zion ez zirela nitaz lotsa, nire erabakia babesten zutela, eta beste artikulua bat idatzarazi zion, barka eske”.

Ustekabea, gurasoak bisitan joan zitzaizkion Bernedora: “herrira agertu zirenean, soda kaustikoarekin basurde baten larrua garbitzen ari nintzen etxe aurrean, odolez zipiztinduta”. Egun hartan jaso zuen gurasoen oniritzia, eta oniritziarekin, konpromisoaren zama: “A ze beldurra! Lehen, gurasoen kontra idazten nuen, nola idatzi gurasoekin baimenarekin? Sekulako ardura zen. Zer kontatu behar nuen?”.

Handik gutxira eman zuen aurreneko hitzaldia *idazle* tituluarekin. *Idazleak ikastetxeetan* programarekin, berriz, lehen saioa Arabar Errioxan egin zuen, Lapuebla de Labarcako Assa ikastolan; eta esperientzia hark mintza ukitu zion ustekabea, “funtzio izugarri

inportantea betetzen zuela sentitu nuen”. Gerora, izan da Tuteran, Tafallan, Muskizen, Trapagan... “Euskarak egoera makurrena duen tokietan prestatzen dituzte saioak ondoen”.

Asierren begiradak gaztainatik duena du beltzetik, ozpinetik adina nostalgikotik, amildegitik duena zubitik. “Gizakia maite dut, baina ez taldean” esango dizu, eta handik gutxira, “idazteak baketzen nau gizakiarekin”. Orain dela hogeitau urte idazleen bisitek eskoletan prestigio handiagoa zutela sentitzen du: “ikastetxera idazle bat etortzea *gertakizun* bat zen, denak egoten ziren idazlearen zain, baita bedela ere, izenez deitzen zidaten bedelek”. Irakasleak sumatzen zituen ahapeka: “begira zer txikia den”.

Orduko irrikarik ez du sumatzen orain, “irakasle bat arduratzen da zutaz, eta eskolan inork ez daki bazoazenez”. “Ni ere aldatu naiz”, aitortzen du, “gaztetan ikasleen mito-txikia izan nahi nuen, haien erreferentia, egolatria handiz”. Orain bakartiagoa da, eszeptikoagoa, hitzak Miren Agur Meaberi lapurtuz, “distantzia da bere lekua orain”. Irakaslekin ere, beste paper bat jotzen duela badaki: “hil ezazue aita”, esaten die, “hemen dituzue gitarra, papera eta arkatza; sar ieazkidazue bihotzaren erdian, zuon garaia da”.

“Ez nuke irakasleen aurka hitz egin nahi baina...”, ikasleak, kozkortzen hasi orduko, liburuekin “bakarrik” uzten direla deitoratzen du, “irakasleak itsu-mutila edo itsu-neska izan behar luke nerabeentzat”. Liburuen lanketa-moduetan gabezia handiak ikusten ditu, eta ez eredu faltagatik. Txundituta gelditu zen, adibidez, ikastaro batean Amaia Serranok eta Iratxe Retolazak Andu Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez* eta Koldo Izagirreraren *Dumitru* liburuen lanketarako prestatuturiko unitate didaktikoarekin: “liburu batek eman dezakeen guztia nola zukutu erakutsi zuten”. Eta, halako batean, idealismora lerratzen zaio gorputza: “Ikasle batek gustuko liburu bat topatzen duenean, alor akademiko guztiak jorra ditzake hari segika: artea, historia, geografia, matematika, filosofia, hizkuntza!”. Baina, horretarako, irakurzaletasuna hezkuntza komunitate osoak bultzatu beharko lukeela uste du, ikasgai guztietatik, “eta ausardiak”.

Miranderen *Haur besoetakoa* jartzen du adibidetzat: “guk irakurri genuen ikasle garaian, eta bagenekien zeri buruzko zen: horrexek pizten zigen jakin-mina. Gaur egun ia debekatuta dago. Liburu madarikatu bilakatu dugu. Zoragarria da, barren! Hor badago testuinguru oso bat lantzeko, maila estetikoan, sinbolikoan, ideologikoan... baina beldurra ematen digu ikasleek etxean konta dezaketena, gurasoen epai moralak”. Ezetz egiten du buruaz, hortik ezin dela: “Literaturak askatasuna behar du. Uste dut literatura izan behar dela ez-behartua eta interpretazioetarako askea, eta irakasleak eskuzabala izan behar duela”.

Esku mindua buruaren parera altxatu eta literaturaren bost aspektu zerrendatu ditu: irakurmena –irakurtzeko gaitasuna–, irakurketa –irakurtzearen ekintza–, irakurzaletasuna, literaturzaletasuna eta metaliteraturzaletasuna. “Azken hiru aspektuetan dago sekretua”, ziurtatzen du, “alderdiok, motibazioarekin daude lotuta, eta hor egiten da kale. Alfabetoa badakigu, letrak josten badakigu, baina, zertarako irakurri behar dugu? Erantzun hori bilatzen lagundu behar luke irakasleak, eta erantzuna ez da berbera ikasle guztien kasuan. Batxillergoan zergatik ez zaie ikasleei boz gora irakurtzen? Irakurketa konpartitua oso inportantea da gero, etxean, bakarka, norberak liburuarekin duen intimitatea arakatzeko”.

Berotu egin gara, elkarri hitza zapalduz egin dugu aurrera. Idazketak norbere zaugarritasunarekin eta potentziarekin zerikusi zuzena duela aipatu dugu, zauria eta indarra dela, aldi berean: hor daude zure mina eta esan eta eraiki dezakezun guztia, posibilitate mundua. “Nerabezaroa ere horixe ez al da, ba? Zauria eta potentzia!” bota diot nik, eta berak: “Idazlea, gizaki gaztea bezala, aldi berean da jainko txiki bat eta izaki miserable bat”.

Izaki miserableok, idazketa baltsamo izan dugu gaztetatik. Asier Serranok, nerabetan, leihotik Karakateri begira igarotzen zituen eskola-orduak, mendiaren atzean zer zegoen imajinatuz. Eskolako arbelera baino, nahiago zuen bizitzako arbelera begiratu; “horregatik, liburutegira bidaltzen ninduten zigortuta”. Han irakurri zituen Asterixenak eta abarrak. Gerora, klase-orduetan, apunteak hartu beharrean, marrazten hasi zen, baina irakasleek apurte egiten zizkieten marrazkiak. “Horrela hasi nintzen idazten: apunteak hartu beharrean, poemak idazten nituen, eta irakasleek bakean uzten ninduten egin beharrekoa egiten ari nintzelakoan”.

Arazoetan sartzen zuen idazketak, baina barrua baketzen zion. Orduko esperientziatik zuzentzen zaie orain ikasleei: “Zuek ikusi zein arbeletara begiratu nahi duzuen”, esaten die, “hori bai: leihotik kanpora begira egoten bazarete, klasearen amaieran zer ikusi duzuen kontatu beharko didazue”.

Umore beltza, antiheroi-jitea eta erromantikotasun printza bat jartzen ditu ikasleen zerbitzura. “Benedetik esaten zuen bizitza publikoaz eta bizitza pribatuaz gain gutako bakoitzak baduela bizitza intimoa ere. Idazleak hiru plano horiek jartzen ditu jokoan, eta bereizi egin behar ditu: publikoa eta intimoa ondo zaindu beharrekoak dira, baina ez da izan behar lotsarik pribatua konpartitzeko”. Eremu pribatuaren atea zeharkatu eta intimitatea oin-puntarekin ukitzen dugunean sortzen denaz aritu gara, bai baitakigu irakurtzea, zenbaitetan, arrotz bati gure intimitatean sartzen uztea dela. “Batzetan, ikasleen begietan ikusten duzu *sartu* egin zarela, eta hori ederra da”.

Literaturzale amorratua izan arren, ez ditu liburuak fetitxizatzen. Apenas duen libururik etxean: “Eibarko pisua saldu nuenean

liburu guztiak eman nituen Sahararen alde dirua lortzeko azoka baterako”. Liburutegikoak irakurtzen ditu orain. Etxea liburuaz hustea “liberazioa” izan zen berarentzat. Kultur kontsumoa zeri arraio esaten zaion galdetzen du: “Ez dakit konparazioak balio duen, baina nik kokaina gramo bat erosten badut, kontsumitzeak sudurzulotik sartzea esan nahi du. Apalategian utziko banu, hor ez legoke kontsumorik”.

Gaur egun irakurketak inorekin konpartitzen ote dituen galdetu diot, eta lankideak, senideak eta lagun filosofo bat aipatu ditu: “amarekin historia-liburuak, aitarekin autobiografiak eta saiakerak, anaia nagusiarekin album ilustratuak, filosofoarekin...”. Ordu asko ematen ditu irakurtzen, gaez argi apalarekin eta egunez ordenagailuaren aldamenean “jakin-minaren liana batetik bestera jauzika”. Ez omen dago alferrik irakurri duen ezer.

Pozik dago euskal literaturako azkenaldiko emaitzekin, “uste dut euskal idazleek ulertu dutela literatura zertarako den”, dio. Gazteak goraiatu ditu: “Irakurtzen ditut Leire Vargas edo Oihana Arana eta diot... ze onak diren!”

Pandemia garaian ezin izan du apenas ezer idatzi, oinazeak ez dio utzi. Laster, ordea, *Ekografiak* izeneko diskoa kaleratuko du Loreleirekin, eta nobela bat ere badu labea: “ahots berri bat probatzen ari naiz”. Idazketa, beste behin ere, erreskatera atera zaiola onartu du: “Nik ez neukan idazteko batere gogorik, behea jota nengoen, baina Nortonek esan zidan ni salbatzeko egin behar genuela diska, eta idaztera behartu ninduen. Eta hasi nintzen idazten... eta braust atera zen dena, amamaren kantuarekin bezala”.

Ordulariari begiratu diot erdi-disimuluan. “Gehiegi luzatzen ari naiz?”, kezkatu da. Ez da hori, Zumaiako irakurle-taldean zain dauzkat Natalia Ginzburgen *Familiako lexikoa* liburuaz hitz egiteko. “Nik ere zuen taldera joan behar dut hurrengoan”, esan dit oinez autorantz laguntzen didan bitartean. Hitz hartu diot. Bisita hori zor dit niri orain Asierrek, eta nik berari kafe bat, *hala bazan eta ez bazan*, kartera etxean ahaztuta azaldu bainaz elkarriketa egitera Argiñanorenekin terrazan.





EZTIA ETA BRILLANTINA

CASTILLO SUAREZ



Ez dut inoiz ahaztuko egin nuen lehendabiziko saioa. Autobusez joan nintzen Gasteizera, Ramon Bajo ikastetxera. Ez dut inoiz ahaztuko irakasle haren izena: Marta Luisa. *Ebelina Mandarina* liburua ere ale batzuk erosi zituen gelakideen artean banatzeko eta galdera mordo zituzten prestatuta. Galderak eta oharrak. Neska batek esan zidan bere amari ez zitzaizkiola animaliak zituzten zirkoak gustatzen, eta berehala ondorioztatu nuen noren alaba zen: etorkinez betetako eta A eredu ikastetxe hartan D eredu ikastetxe bihurtzeko borrokan aritu ziren bi unibertsitateko irakasle, alabak bertara eraman zituztenak joera guztien kontra. Koreografia bat egin zidaten. Oso bisita berezia zela nirea sentiarazi zidaten. Ez dut horrelako beste saiorik bizi izan, egia esan. Baina oroitzapenik onena da etxera eraman nituen eskulanak, brillantinaz eta koloretako paper puska beteta. Horietan ume bakoitzak kontatzen zidan nor zen, norekin bizi zen, zeintzuk zituzten gustuko gauzak...

Gauza asko kontatu nitzake han eta hemen egin ditudan saioetatik, baina umeek kontatzen dizkidaten gauzeekin akordatu naiz batez ere. Burutara etorri zait Altsasukoa nintzela esan, eta bere aita bertan suhiltzailea zela esan zidan umearena. Gelakideek, bata bestearen atzetik, haien gaursoen lanbideak aipatu zituzten, batek izan ezik. Valentzian zeukala aita esan zidan, eta berehala ondorioztatu nuen Picassenteko kartzelan egongo zela. Orduan ez zegoen programa Nafarroan ofizialki abian, eta gazta batekin eta ezti pota batekin bueltatu nintzen etxera. Jauntsaraseko eskola aurretik pasatzen naizen aldiro akordatu naiz egun hartaz.

IDAZLEON SEKRETUA

FERNANDO MORILLO

Hogei urte, jada. “Idazleak ikastetxeetan” programako nire lehen esperientzia zen gelan. Hankak dardarka nituen eta bihotza taupa-ezinean. Gazteen begiradetan, denetarikoinuak: jakin-mina, itxaropena, mesfidantza, gogorik eza.

Zeharo kezkatu nintzen, ez nekielako ziur zer, are gutxiago nola. Liburuaz hitz egin behar nien? Galderak egingo zituzten? Merezki zuen zerbait baliotsua eskaini ahalko nien?

Ikasleak zain, isiltasun urdurian. Ni, amildegiaren ertzean, neure kolkoa arakatzen. Han, zorionez eta ezinbestean, hitzak. Txiki-xumeak, baina bihurri-biziak. Idazlearen tresna eta, sarritan, euskarri.

Atera ziren hitzak. Nireak. Baita haienak ere. Liburu iturburu baino ez zen. Denon ametsak bidaide, bestelako istorio bat hasi zen irudikatzen. Musika hura bai, ohartu nintzen, eremu kutuna



nuen. Genuen. Istorio bat izan baita beti gizakiok elkartzeko sutondorik epelena.

Konfiantzazko bidezidor hartan, gazteen eta guztion ziriak eta zauriak islatu ziren; eta halaber islatu ziren gogo-irrikak eta distirak.

Ezusteko sariaz ohartu nintzen: “Idazleak ikastetxeetan” ez zen hainbeste liburu batez aritzeko parada, irakurle gazteekin barne-ipuak konpartitzeko altxor-kutxa baizik.

Hankak dardarka eta bihotza paralizaturik izaten ditut oraindik, saioen lehen minutuetan. Orain, ordea, ez da kezka arrazoia, zirrara baizik. Badakidalako zer datorren. Amaieran, begiak pizturik eskertzen dute gazteek jasotako guztia. Nik, mutu, ez diet gure sekretua kontatzen: arima eta bihotza barru-beterik, askoz gehiago eraman du idazleak.

EKARRI ETA EMAN

JASONE OSORO

1998. Nire lehen liburua aurkeztu nuen urtea.

Xabier Mendigurenek deitu zidan esanez Euskal Idazleen Elkartearen bazkidetzeko aukera nuela. Idazleen elkartearen? Ni? Ez dakit, bada... Zalantzak. Idazle izatea gauza serioa zen eta ni, artean, idaztea gustuko zuen gazte bat besterik ez nintzen; kazetaritza ikasi zuena eta, halaxe, herri astekari batean ari zena lanean. Baina Xabierrek Idazleak ikastetxeetan programa aipatu zidan, aukera polita zela hura, eskoletara joan eta irakurleekin aurrez aurreko solasa izateko.

1988. Elgoibarko institutuan ikasten nengoan, garai hartako BUPeko hirugarren maila egiten.

Euskarako irakaslea etorri zitzaigun pare bat ikasleri esanez Pako Aristi idazleak bisita egingo zigula eta ea harrera egingo genion. Ups. Pakoren *Kcappo* eta *Irene* irakurriak nituen, izugarri gustatu zitzaizkidan eta ilusio handia egiten zidan idazlea ezagutzeak. Ilusioa eta lotsa. 17 urteko nerabe baten azal herabea nuen. Baina baiezkoa eman genion maisuari eta hark esandako egunean eta orduan paratu ginen institutuaren sarreran. Pako auto *Escarabajo* urdin argi batean iritsi zen. Nik irudikatzen nuen idazle planta zuen. Ez dakit zerbait esan ote genion, ez dut oroitzen. Baina oso ondo akordatzen naiz eman zuen hitzaldiak liluratu egin ninduela. Bere berba jarioak, erabiltzen zituen hitzak eta esamoldeak, jartzen zizkigun adibideak. Pako idazlea zen, dudarik gabe. Hura izan zen aurrez aurre ezagutu nuen estreinako idazlea. Idaztea ofizio zuena, gainera.

Bale, EIEn izena emango dut, Xabier. Ea zer ekartzen didan horrek.

Eta ekarri dit. Askok, gainera.

Ekarri dit autoan bidaiatzearen plazera. Hara eta hona beti.



Errepide eta paisaia berriak ezagutzen. Patxadaz batzuetan, eta galduta beste askotan. Baina ekarri dit ohartzea askotan beharrezkoa dela galtzea bide berriak aurkitzeko.

Ekarri dit irratia entzutea. Irratian entzundako gai eta istorioen inguruan hausnartzea. Irrati esatarien ahotsak neure egitea. Irratian jasotako halako edo bestelako izenekin pertsonaia berriak sortzea. Edo liburuetarako ideiak, pasarteak, pasadizoak bururatzea.

Ekarri dit era guztietako eskolak bisitatzea. Era guztietako irakasleak. Era guztietako harrerak egin dizkirate. Edo harrerarik egin ez, noizbait. Eskolan sartu eta inor ere ez zain. Galdetu eta inork ez daki nor zaren, ezta zertara joan zaren ere. Gertatu zait guztiz ezezaguna zaidan eraikin batean, ez dakit zenbatgarren solairura igo, eta ezkerreko pasilloan aurrera egin, eta laugarren atea jotzeko esatea harrerakoak. Ekarri dit ikastea esaten nahiago dudala berak laguntzea. Ekarri dit, beraz, eta besteak beste, ezetz esaten ikastea.



Ekarri dizkit irakasle maitagarriak. Literatura maite dutenak, liburua landu dutenak eta idazlea bertaratzeari balioa ematen diotenak. Kafe bat hartera gonbidatzen zaituztenak. Urterik urte joatearen poderioz harreman ia pertsonala bihurtu da irakasle batzuekin dudana. Kontatu dizkirate beraien bizipenak eta bizipen horiek erabili izan ditut fikzioa egiteko. Ekarri dizkit, beraz, errealitatetik fikziorako zubiak.

Ekarri dizkit ikasleak. Askotarikoak. Irakurleak direnak. Irakurtzea gorroto dutenak. Marrazkiak egin dizkirate. Aho zabalka egon direnak. Ea zergatik idazten dudana galdetzen dutenak. Zergatik euskaraz. Zein den orri gehien duen nire liburua. Zenbat denbora ematen dudana liburu bat idazten. Zein den idatzi ditudan artetik gehien gustatzen zaidan liburua. Zer egin behar den idazlea izateko. Noiz eman nuen nire estreinako musua. Noiz jaitsi zitzaidan hilekoa. Zenbat urte ditudan. Ea ama naizen. Ea zenbat diru irabazten den. Baina zenbat? Zenbat liburu saldu dituzu?

Ekarri dit nire liburuak ezagutzea. Izan ere, idazten ari naizenean ez naiz hainbat gauzaz ohartzen. Gerora, irakurlearekin harremana dudanean ezagutzen dut neuk ere nire istorioa. Zer dagoen benetan bertan. Zer dagoen mamian. Zer lerro artean. Zertan asmatu dudana. Non dauden hutsegiteak.

Ekarri dit diskurtso bat eraiki beharra. Sormenez. Irudimenaz. Pertsonaz. Bizitzaz.

Ekarri dit jendaurrean hitz egiten ikastea. Batzuetan urduri, baina ikararik sentitu gabe. Entzuten ari direla ohartu, interesa dutela ikusi eta hitz egitearekin gozatu dut. Gozaten dut. Hori ere ekarri dit.

2019. Durangoko azoka. Mutil gazte bat gerturatzen zait. Argitaratu berri duen liburua oparitzen dit. "Zu ez zara oroitu baina duela urte batzuk gure eskolan izan zinen, zure liburuez hitz egiten. Bertan esan zenizkigun hitzek eragin handia izan zuten nigan. Idazteko eta irakurtzeko, idazteko eta irakurtzeko esan zenigun. Kasu egin nizun. Hauxe da nire lehen liburua".

Hori ere ekarri dit. Norbaiti zerbait eman diodala jakitea.

Zer da, bestela, literatura, ematea ez bada?

Horregatik uste dut hori dela Idazleak ikastetxeetan programaren magia, bertan parte hartzen dugun guztiok, idazleok, irakasleek, ikasleek eta antolatzaileek, eman egiten dugula.

Irakasleek kontatu dizkirate beraien bizipenak eta bizipen horiek erabili izan ditut fikzioa egiteko.



IBILBIDE LUZEA

IÑAKI ZUBELDIA

Irakurtzea atseginarekin eta gozamenarekin lotu ohi da. Eta egia da irakurle trebatuak ondo pasatzen duela bere gustuko jardueran. Film eder bat ikustea bezalaxe da. Film on batekin asmatzen baduzu, beste bat ikusteko gogoia pizten zaizu. Liburuekin gauza bera gertatzen da: liburu on batekin beste bat eskuetan hartzeko grina sortzen dizu.

Baina, nola sortu irakurtzeko zaletasun hori umeengan? Txiki-txikitik istorio zirraragarriak kontatuz, ipuin klasiko eta mitologikoen xarma sarritan eskainiz, abentura eta gertakizun ederrak beraiekin batera irakurriz, hitzekin jolas eginez, errima eta olerki politak behin eta berriz errepikatuz eta abestuz... Haurrak hitzen eta istorioen magia, misterioa, zirrarra eta edertasuna sumatu behar du, den-dena ulertzen ez badu ere hasieran. Gerora edertasun horren jabe egingo da modu kontzientean.

“Idazleak ikastetxeetan” egitasmoa ere haurrengan eta gazteengan irakurzaletasuna pizteko asmoz sortu zen duela 30 urte. Nik horietatik 29 urtetan parte hartu dut, 1700 saio pasatxo eginez, Euskal Herriko geografia ia osoa alderik alde zeharkatuz. Euskal Idazleen Elkartez gain (*Idazleak ikastetxeetan* eta *Liburuak gozagarri*), beste erakunde hauek ere deitu didate ikasleekin literatura une goxo horiek partekatzeko: FIRA (Iruñea), Ibaizabal, Erein, Desclée, Libreplume – Bouquinville Ttikia (Baiona), ikastetxeak berak, herri eta hirietako liburutegian...

Estatistika zalea naizenez, datuak gorde egiten ditut eta aitor dezaket 67.000 ikasletik gora egongo zirela saio horietan. Liburuei dagokienez, historian zehar liburu hauek izan dira irakurrienak: *Pako belea*, 274 saio; *Mirari hegalaria*, 240; *Euskaldun bat Marten*, 229; *Tximu bat klinikan*, 222... Baina denboraren joanean liburu berri batzuk ari dira eskaera ugariagoa izaten: *Siberiako neskatala ausarta*, *Leize-zuloko misterioa*, *Eskola sorgindua*... eta mantendu egiten da *Euskaldun bat Marten*.

Saioak antolatzeko eta gauatzeko nire teknika ere aldatzen joan da. Hasieran, gehiago mugatzen nintzen liburuaren azterketa literarioa egitera: barruko pertsonaiak eta gertaerak, baliabide literarioak, ipuinaren edo obraren egitura... aztertu, ikusi eta komentatu, eta ikasleen galderei erantzun. Laster konturatu



nintzen hori oso sotila zela, gauza elemental bat egiten ari nintzela, baina plus bat eskaini behar niela, idazlearen bisitarekin gustura gera zitezten. Eta saioaren bukaera aldean, errekarriekin abesten eta erritmoak lantzen hasi nintzen. (*Harri kozkor batekin, hor dabil Martin-tin-tin... edota Jolasean nenbilen ilundu zenean...*); edo hitz-jokoekin, palindromoekin jolasten genuen (*ama, radar, alaba zabala, niki zikin, akerren erreka, erre katu putak erre*, eta erderaz: *somos o no somos, dábale arroz a la zorra el abad, Anita la gorda lagartona no traga la droga latina...*).

Txikiagoekin ipuin erakargarriak eta ilustrazio bikainez hornituak bilatzen saiatu nintzen kontatzeko eta, tartetean, jolas interaktiboak egin izan ditugu: *tapatu teiltua* (bi eskuak buru gainera), *itxi leihoak* (bi eskuak begietara), *itxi balkoiak* (bi eskuak belarrietara), *itxi iturria* (esku bat sudurrera), *itxi atea* (esku bat ahora) eta *zabaldutua* (eskua kendu ahotik). Eta hori egiten ikasitakoan tranpan erorrarazi. *Tapatu teiltua* nik esan eta eskua ahora eraman, baina beraiek eskuak buru gainera eraman behar dituzte, eta horrela beste atalekin, beti engainura eramaten saiatuz. Askok gozatzen dute joko honekin eta beste ipuin bat entzuteko erlaxatuta geratzen dira. Baita ere ipuin batzuen irudiak “pendrive” batean eraman eta pantaila handian bota izan dizkiet. Horrela modu biziagoan ikusten dituzte ipuineko pertsonaiak, paisaiak eta gertaerak.

LHko hirugarren mailatik aurrera beste baliabide batzuk erabiltzen hasi nintzen eta arrakasta handia izan dute: Arrikruzko leize-zuloan topatutako leize-lehoiaren historia kontatzen diet, hura topatu eta gero nola galdu ginen leizean, hamabi ordu estu eta larri nola pasatu genituen ilunpean eta isiltasun absolutuan, haluzinazioak nola izan genituen gauerdialdera, eta goizeko seietan nola atera gintuzten Arantzazuko beste ikasleek, behi-adar salbatzaile baten “pffuuu” luzea entzun ondoren. Honekin batera, “pendrive” bat erabiltzen dut eta pantaila handian ikusten dituzte

estalaktita eta estalagmita zoragarriak, eszentrikak, “Maravillas” izeneko gela, lehoiaren gela, Aranzadi gela erraldoia (gu galduta egon ginen), lehoiaren hezurdura, burezurra, letaginak eta behi-adar salbatzailea... Eta ondoren leize barruan grabatutako film laburra (5 minutu) botatzen diet musikaz lagunduta. Eta bukatzeko, munduan egin diren hainbat aurkikuntza harrigarri: Siberian, permafrostean, aurkitutako mamutkme osoa (tronpa, haragi, azal eta guzti), milaka urte dituen; baita ere Siberian, permafrostean, aurkitutako bi leize-lehoikume, errinozero iletsu bat eta otso bat (haragi, azal, ile eta guzti hauek ere), milaka urte dituztenak.

Orokorrean, esan dezaket saio nahiko onak eta bikainak ateratzen direla gehienetan edo hori izaten da behintzat nire pertzepzioa. Baina, horretarako komeni da eskolaren aldetik baldintza batzuk betetzea: gela egokia izatea, ikasleak aulkietan eserita eta eroso egotea, patiotik edo gimnasiotik zarata handirik ez sartzea gelan, ikasleen arreta eta isiltasuna ziurtatua egotea irakasle batzuen laguntzarekin, idazleak behar izan litzakeen tresnak prest edukitzea: arbela, paperak, proiektorea, pantaila, botila bat ur...

Eta bukatzeko, gogoetarako edo eztabaidarako puntutxo bat: idazleak noiz erretiratu behar du ikastetxeetan egiten diren saio hauetatik? Badago horretarako adinik? Gazteei tokia uzteko komeni da adinean aurrera doazenak erretiratzea? Ala idaztea eta obra ezagutzera ematea sormen lan bat denez, horrek ez dauka adinik. Beraz, idazleak sortzeko ahalmena duen bitartean, eskolatan bere ekarpena modu duinean egiteko gai den artean, eta irakurleek bere lana hobesten duten bitartean jarrai dezake “Idazleak ikastetxeetan” programa honetan?

Galdera *jacta est*. Orain iritziak entzuteko prest nago.

AMAITU EZ DEN BIDEA

JOXEMARI ITURRALDE

Literatura bultzatzeko, irakurzaletasuna indartzeko, idazle on ofizioa nolabait berpizteko... programa hori martxan jarri zenean, jada duela urte dezente, gogoan dut oso idazle gutxi ibiltzen ginela garai hartan ikastetxe batetik bestera, eta nola? Ba..., Txirritak zioen moduan esateko: “Mixiolari baten moduan... ejemplo onak ematen inuzentien tartian”.

Programa ona, proiektu bikaina iruditu zait beti *Idazleak ikastetxeetan* deituriko hau, bultzatu behar den zerbitu, benetan onuragarria delako edozein aldetatik begiratuta ere. Badakit, krisiak jotako egoera tamalgarrira ari garelako nozitzen egun, dirulaguntzak zeharo murriztu direla, bereziki 2008. urtean hasi zen porrot entzutetsua dela medio, baina hala ere, iruditzen zait diru gehiago jarri behar dela, oraindik ere, programa hau indartzeko, funtsezkoa delako kulturaren zutabe garrantzitsu hori ahalik eta gehien sendotzea, eta, gainera, gaurko haurrek, gaurko gazteek —biharko pertsona helduak izango diren horiek— merezi dutelako, kultur-bultzada hori zor diegulako. Literaturaren mundutik at bizi den gizartea gero eta txiroagoa da, dudarik ez; horregatik, indartu behar da irakurzaletasuna pertsona horien artean.

Behin baino gehiagotan gertatu zait: Euskal Herritik atera eta hor nonbait hizketan hasi idazle espainiarrekin geure lanbide honek dituen neke, poz eta gorabehera buruz, eta nik azaltzen nienean zer zen eta nola funtzionatzen duen *Idazleak ikastetxeetan* programa, inbidia osoz begiratzen zidaten eta aitortzen euren komunitateetan ez dagoela horrelako ezer, ezta antzekorik ere.

Idazle bat ikastetxe batera doanean bertako ikasleei hitz egitera, iruditzen zait tarte hori ospakizun unetzat hartu behar dela, irakasleek eta ikasleek horrelaxe sentitu behar dutela, festa moduko zerbitu balitz bezala. Eta ikastetxean idazlearen azaltze horrek zeremonia modukoa behar luke izan, hau da, erritu batzuk bete beharko lirakeke gauzak ondo egitearren. Lehenengoa, iruditzen zait areto berezi batean egin behar dela saio hori, eta ez egunero klasea ematen den gela horretan, eta areto berezirik ez baldin bada ikastetxean, bada, orduan, liburutegian egin beharko da idazle eta ikasleen elkartzeko. Ikasle kopurua izan dadila beti 40 baino txikiagoa, eta ikasle gehiago baldin badira bigarren saio bat egitea derrigorrezkoa da.

Hau garrantzitsua da, nire iritziz: soilik joan daitezela saio horretara joateko gogoan duten ikasleak, ez beste inor, hau da, ikasle bakar bat ere ez dadila elkartzeko horietara behartuta joan. Baina hori bai, joan nahi ez duten ikasle horiek beren gelara joan beharko dute, klase normala balego bezala, eta ez ditzatela patiora bidali, errekreio garaia balitz bezala (horrelakoak ere suertatu zaigu ikustea).

Ikasleen eta idazlearen arteko elkartzeko hori, saio berezi hori aparteko gauza denez, ospakizun berezia denez, emankizun bitxia eta ezohikoa denez, ikasleek aretora edota liburutegira sartzen direnean, sarrera erakutsi beharko lukete. Jakina, kasu

honetan, idazleak idatzitako liburua izango litzateke sarrera hori. Eta hemen berriro hasten dira arazoak, hots, diru-kontuak (eta hemen ere idazleok denetarik ikusi dugu urte hauetan guztietan).

Ikastetxe askotan azaldu zaizkit ikasleak, txintxo-txintxo, nor bere liburua eskuan dakarrela, saioaren amaieran idazlearen sinadura eta eskaintzaren esperoan. Hori, idazle batentzat, perfektzioa da, *marabilla* bat. Azken urte hauetan, ordea, lehen aipaturiko ditxosozko krisiaren eraginez apika, ez dira jada horrelako eszenak ikusten. Orain, ohikoa izaten da, zure libururen alerik bat ere ez ikustea ikastetxe horretan, saio horretan. Galdetu ikasleren bati, irakaslearen deskuidu batean, eta jakingo duzu irakasleak irakurri egin diela liburu osoa, edota liburuen zati bat, ez dakit zenbat egunetan edo astetan (horrek zera esan nahi du: irakasleak bai, baina ikasleek ez dutela liburua irakurri, nahiz eta jakin liburuen nondik-norakoak). Kasu honetan, sikiera, ikasleek ikusi egin dute liburuen ale bat, irakasleak ekarritako hori, baina, oraindik ere egoera badago gehiago okertzea: hurrengo batean, beste ikastetxe batean, ikasle batek esango dizu irakasleak zertxobait kontatu diela liburuari buruz, hau da, nolabaiteko laburpen arin-kaxkar bat egin diela irakasleak gelan, idazlea (hots, zu) azaldu baino lehen. Kasu honetan, ikasleek ez dute ezta ale bakar bat ere ikusten, eta horrela jarraituz, gerta liteke, inoiz, ikastetxeren batean, halako batez, ikasle batek ez

Kanpoko idazleek inbidia osoz begiratzen zidaten eta aitortzen euren komunitateetan ez dagoela horrelako ezer, ezta antzekorik ere.

jakitea zer den, nolakoa den, zer itxura daukan, nobela batek edo ipuin-sorta batek... Eta mailakako degradazio honetan, hurrengo pausoa hauxe da (eta horrelakoak eta antzekoak ere maiz gertatu zaizkigu): irakaslea azaltzea zure liburua irakurri gabe, ez bakarrik irakasleak... Irakaslea azaltzea zure izen-abizenak jakin gabe, irakaslea azaltzea zu nor zaren jakin gabe (zaila baita liburuko azal-hegalean datorren zure argazkiari begiradaxo azkarra egitea... liburua ere ez daukazunean), irakasleak zure izena edo abizena beste idazle baten izena edo abizenarekin nahastea (urte hauetan guztietan eginda daukat sailkapen pertsonal modukoa eta, Joan Mari Irigoien idazlearekin nahastu izan naute ia gehien. Adibidez: “gaur gurekin dugu Joxe Mari Irigoien idazle ezaguna...”, edota: “gaur gurera etorri da Joan Mari Iturralde idazle ezaguna...”.



Dena dela, ona komenturako, esan izan da eta, gure kasuan ere, idazle on kasuan, horrelako eta bestelako anekdotak eta gertaerak pozik bizitzen ditugu, gustura hartzen ditugu... badakigulako halako batean aprobetxatu egingo ditugula ez bada liburu honetan bai hurrengoan. Beraz, orain arte kontatutako pasarteek ez didate minik egiten, ezta kontatu ez ditudan beste askok ere.

Askotan, ia beti, saio zoragarriak suertatzen dira, ikasleak primerakoak direlako eta irakasleak ere bai, eta batzuk bikain askok gainera. Baina, denetik dago ofizio honetan, botikan bezalaxe, eta beti egon behar duzu prest edozein gauzatarako. Niri gertatu izan zait, gutxienez bi aldiz nik dakidala, ni hizketan ari ikasleen aurrean eta han atzean, eserita, irakaslea lo seko geratzea. Batean ez nintzen konturatu eta saioaren amaieran ikasle batzuek, gero kalean, komentatu zidaten gertatutakoa. Beste batean ohartu nintzen bai, baita ikasleak ere, halako zurrunga ozenak botatzen baitzituen irakasle lo hartuak (bere alde esan beharra dut, arratsaldeko hiru eta erdiak zirela, maiatzeko egun bero eta sargoritsu batean). Askotan gertatzen da, bi orduko saioa egin behar duzula, esate baterako, ordu bi eta erdietan hasi eta amaitu arratsaldeko lau eta erdietan, eta orduan, irakasleek bi orduko tarte hori aprobetxatzen dutela libre hartzeko, gelatik alde egin eta kafetegira joateko. Eta zu bakarrik geratzen zara ikasle horiekin bi orduz, txirrinak jo arte. Behin bakarrik gertatu zait honako hau: saioa hasi aurretik bi irakasleek jakinarazi zidaten talde hartan bizpahiru ikasle zeudela bereziki txarrak eta gaiztoak, eta ni kontuz ibiltzeko eurekin. Bitartean, bi ordu horietan, beraiek ez zirela gelan egongo, irakasle gelara joango zirela. Eta egia zen! Ikasle horiek builaka hasi zitzaizkidan, zalapartaka, boikota eginez, euskara kaka zaharra zela, ez zuela ezertarako balio... eta antzeko gauzak garrasika esaten... Baina hau salbuespena da, ez zait horrelakorik inoiz gehiago gertatu (gerora jakin nuen nortzuk ziren ikasle haiek eta zergatik zuten horrelako portaera kaxkara).

Gauza onak, bitxiak, ez txarrak, ere gertatu izan zaizkit, esan bezala, urte hauetan guztietan. Opariak jaso izan ditut, mordoka, behin baino gehiagotan esan izan didate hurrengo urtean ere itzultzeko haiengana (seinale ona, dudarik gabe); gutunak bidali izan dizkidate, asko eta asko, eskerrak emanez nire emanaldiagatik (garai batean ohiko gutunak izaten ziren, paper batean idatziak; egun, ia denak emailak izaten dira Internetez bidaliak). Behin irakasle batek —hogeita hamabost bat urteko emakumea— gutun intimoa bidali zidan, bakarrik bizi zela esanez eta bere etxean afaltzeko gonbita luzatuz... Beste batean, Iruñeko ikastetxe batetik ikasle batek —hamaika urteko mutikoa— gutuna bidali zidan etxera, taldeko irakaslearen bitartez, eta hau esaten zidan gutun horretan:

“Kaixo, Joxemari:

klasean irakurri ditugu zure *Riskyren bihurrikeriak* eta baita *Riskyren barrabaskeriak*, baina ez dugu irakurri *Risky eta bere lagunak*.

Guri, oso dibertigarriak iruditu zaizkigu bi liburu horiek. Hainbeste, nik niretzat hirugarren hori ere erosi dudala.

Aupa, Joxemari, besarkada handi bat.

I.L.M.”

Hau da, benetan, ilusio gehien egin didan gutuna, bai baitakit mutiko hori nire liburu bat erostera joan zela, inork ezer esan edo agindu gabe, hamaika urterekin, eta hori egiteko bere dirua erabili zuela, eltzetsutik aterata. Idazle batentzat, hori jakitea gauza handia da, eta nire kasuan, esan bezala, edozein sari literariok baino ilusio handiagoa egin zidan gutun hori jasotzeak.

LETREZ ETA OLIOAZ

NAROA OGANDO UBIRIA, euskara-irakaslea

Heldu zen uztaila, hustu zenuen lehertu beharrean zeneukan irakasle-gelako apal betea, utzi zenituen institutuko giltzak atezaintzan, eta *orain bai, orain libre nago*, pentsatu zenuen sarrerako atea zeharkatzean. Igaro zen uztaila, heldu zen abuztua, eta, hilaren 20tik aurrera, kirri-kirria hagnetan, txindurriak urdailean, arnasan, gogoan.

Oraingo azaleko datuak baino ez dakizkit: ehun eta hamar arima herratu, bost talde, DBH 3n tutore. Mamiari buruz, galderazaparrada: maskalduta utzi ote zituen koronabirusak? zelakoak ote dira taldearen barruan, zelakoak bakarka?; zer egin ikasteko gogorik ez dutenekin?; zer egin euskaraz ez dakitenekin?; zenbatek ote dakite euskaraz?; zenbatek erabiltzen ote dute? Beste buruko min bat: zer egin euskara behar dutela sentitzen ez dutenekin, alegia, euskara behar ez dutela sentitzen dutenekin? Txikitatik D erudian ibili arren. Ea ondo hartzen dugun elkar... Tira, moldatuko gara zelan edo halan...

Lehenengo egunean udan zer irakurri duten galdetuko diet. I-ra-ku-ri, esango didate algaraka gandortenteek, basurdeen pare: *leer, dice, si hemos leído algo*. Alegia, ez flipatu, Naroa. Ezer irakurri dutenak isilik geratuko dira. Neska larru-sendoak paparra aterako du eta *irakurtzea rollo bat da* botako dizu, mutilen konplizitate bila. Ezer irakurri dutenek gaztelaniaz irakurri dute.

Halaxe da, huraxe gertatu zen.

Gu ez gintuen koronabirusak geldu zortzigarren mailako udan, ezta sareak kaiolatu ere ondo nagusi egin arte, eta han egoten ginen ahizpa eta biok liburu-janean: *Gizona bere bakardadean, Egunero hasten delako, Zergatik Panpox?*... Gurasoek liburutegi oparora zuten etxean, gure pozerako. Gose ginen, sentitu nahi genuen, beste ni batzuk ezagutu, mundua ulertu, euskara xurgatu, handien kontuetara hurreratu, geu ere handi egin, belartzatik mugitu barik, uztaileko goiz eguzkitsuetan. Zume negartiaren gerizpea zen gure kanpalekua, eta edonora ailegatzten ginen begiak paperean iltzatuta. Beste sasoi batzuk ziren.

Orain, gaztetxoen gorabehera zuztarbakoak irakurtzen dituzte ezer irakurtzekotan, eta ez eskatu hortik gorako ezer. Orain, irakurri barik, ikusi egiten dute, pantailan, ez paperean, arin, tximistaren abiadan, eta ez dadila buruari eragitekoa izan, mesedez. Begiek egiten dute garunaren beharra: irudikatze, irudiak behar dituzte, ez irudimena.

Bada, idazlea honaxe etorriko zaigu, institutura, esan diezu, opari mandoa da.

Ez dute ezer jakin nahi tertuliak egitearen gainean. *Beste rollo bat*, diote. Orduan zeuen kontura irakurriko duzue, eta, dena irakurritakoan, galderak egingo dizkizuet. Hiru bider aldatu

behar izan dugu data, ze urliak ez duela liburua lortu, sandiak galdu egin duela, berendiak okerrekoa erosi duela... *Gainera, ez dugu guk aukeratu: inposaketei stop!* Ondo, gazte eta errebelde; nahiago horixe, amatatuta egotea baino.

Azkenean, ez dela ulertzen eta pertsonaia larregi daudela eta denboran salto ulertezinak egiten dituela idazleak eta protagonista orain hemen dagoela eta gero han eta nobela korapilatsuegia dela eta berba ezezagunez josita dagoela eta..., ai ene, zer da hau, baina? Berriketaldi batzuk antolatu ditugu. Giroa sortuta —horixe gaitza, piezak modu egokian ahokatzeta eta engranajea ganoraz olioztatzea—, berez etorri dira aitorpenak, pasadizoak, jakin-mina, galderak, irrikak, ondorioak... “Ba, egia esan, neuk ere...”; “Behin, geuri ere...”; “Nik, protagonistaren lekuan...”; “Orduan ez litzateke hobe...?”, eta abar. Hau da, bizitza, heriotza eta maitasuna.

Ez du idazleak beste libururik idatziko, protagonistari zer gertatu zitzaion jakiteko?, dio musugorri lotsor batek. Ez dakit, galdetu iezaiozu berari, nahi baduzu, gelara datorkigunean.

Hemen datorkigu. *DPM, perdemos la clase de Euskera*. Liburutegian egingo dugu saioa, paper-usainaren berotasunpean. Han jesarri gara arbel txikiaren aurrean. Denok adi. Kandelatxo bat piztu du idazleak. Ikasleek urduri begiratzen diote suari, urduriago idazleari, zirraraz. Oraintxe hasiko da kontu-kontari.

Hamelingo txirulariak legetxe hipnotizatu gaitu: hara hor taldeko oilarrak, saguak baino sorginduago; hara hor euskaraz ez dakitenak, ikaskideen barrekar deskodetu nahian; hara hor euskarafoboak, euskararekin bakeak egiten; hara hor nerabe bihozberak, egunerokoa idazten hasteko asmotan. Idazlea famatua edo aberatsa den jakin nahi zuenak ez du informazio hori behar izan, eta ikasle musugorri lotsorra barrua beteta itzuli da gelara eskua altxatzen ausartu delako. Istoria aurretik mamurtuta edukitzeak samurtu egin du emanaldia; dena dela, idazlea bera izan da magoa, eta, era berean, geu lakoxe hezur-haragizkoa, *to normala* edo, behintzat, *ez hain frikia*. Edo *to frikia*, nahi baduzu, baina liburuaren gaineko ikuspedia osatzeko eta aberasteko balio izan du bisitak.


Gauerdian amaitu egingo da efektua. Oraindino bitsaren gainean daude, eta bigarren hiruhilekora egin dute salto gazteek: *etorriko da idazlerik?* Egileak ikastetxeetara etortzeak/joateak beste gogo bat pizten du ikasleengan, duda barik.

DBH 4 amaitzen ari dira orain iazko ikasle purrustari haiek, bizitza den labirintoan euren lekuaren bila zebiltzan bidaiari hauskorrak. Bada, gauza asko ez ziren zuk esperoriko eran irten, zoritxarrez, baina tertuliekin, idazleekin eta engranajea bustitzeko olioarekin ondo gomutatzen dira, zorionez.



LEIHOAK JOSTAILUEN ERRESUMAN

PATXI ZUBIZARRETA



...*gogoan baitut* irakasle garaia, eta *gogoan baitaramat* nola, material faltan, asmatzen ibiltzen nintzen iradokizunak, ariketak, poematxoak, aho korapiloak, binomio fantastikoak, errimak;

oroian baitut nola saiatzen nintzen ikasleek idazle edo poeta izan behar balute bezala;

kontuan baitut praktikarekin ikasi nuela ume bakoitzak idazle bat, poeta bat duela barruan;

gomutan baitut artean ez nintzela jabetzen praktikotasunaren eta probetxu materialaren bisutsa ari zela jaikitzen, jaikitzen;

akordatzen bainaiz nola saiatzen nintzen hainbat formularen errepikapenekin eta aldaketekin ikasleak motibatzen...

Anjel Lertxundi, *Desertuan behatxuloa*

1. P, P, P

Miguel Delibes idazlearen esanetan, hiru P egon ohi dira narrazio bakoitzaren oinarrian, P letrarekin hasten diren hiru osagai, alegia: Pertsonaia, pasioa eta paisaia. Idazkuntzan dabilenak ongi ezagutzen ditu elementu horiek, baina, «Idazleak ikastetxean» programa gogoan, gaineratu genezake hiru P horietxek daudela ekimen arrakastatsu honen oinarrian ere.

1.a. PERTSONAIA

Plazerez irakurzaletu nahi genukeen ikaslea dugu programaren pertsonaia eta ardatza, baina eskarmentuak Pinotxo ekar diezaguke gogora, literaturaren historiako protagonistarik gogoangarrienetakoa. Behin batez, egurrezko panpinak Jostailuen Erresumara joatea erabaki zuen, izan ere han ez baitzegoen ez eskolarik, ez maisu-maistrarik, ez libururik; izan ere han sekula ez baitzegoen ikasi beharrik; izan ere han ostegunetan ez baitzegoen eskolarik eta, Jostailuen Erresuman, asteak sei ostegun eta igandea baitzitu... Pinotxo eta hainbat haur hamabi asto parek gidatutako zaldikotxe batera igo ziren eta josteta eta parranda hutsean ibili ziren erresuma desiratuan. Alabaina, denboraren poderioz, Pinotxori aurrena astabelarriak atera zitzaizkion, eta hurrena isatsa, eta, azkena, asto bilakaturik, arrantzaka hasi zen...

Irakurzaletu nahi genukeen ikasleak esku-eskura dauzka liburuak, baina ez zaizkio tentagarriak; aukeran, Pantailaren Erresuma nahiago. Barruan poeta bat daukan ikasleak nekez idazten du, nekez irakurtzen eta, berriro ere Anjel Lertxundiren hitzak berriturik, bisitan joan zaion idazleari galdetuko dio ea ez ote den idazten aspertzen? «Eta zu ez zara bizitzen aspertzen?, etorri zaio idazleari burura, baina ez du txintik esan». Yolanda Arrietak, oster, honela erantzun izan dio galdera horri: «Bai, baina esaldi polit bat eratzen dudanean, kosmosaren erregina sentitzen naiz».

1.b. PASIOA

Idazle bakoitzak, denboran atzera eginez, ikasle irakurzale bat ezkututzen du, irakurtzea du pasio, eta horretan oinarritzen du idazketa. «Idazleak ikastetxeetan» programa pasio horixe kutsatzeko asmoarekin sortu zen: irakurketa sustatzeko, irakasleei sorkuntza lanetan laguntzeko, euskal literatura zabaltzeko...


Lehendabizi, EIEko hainbat idazleren ekimenez, Donostiako Udalaren babesarekin eta, 1997. urtetik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren laguntzarekin. Urtez urte, saio osagarriak kontuan izan gabe, berrehundik gora saio eskaini izan dira; EAEan, 2021-22 ikasturtean 360 saio egin dira, 236 ekitaldi osagarriekin batera, baina programak 2009-2010. ikasturtean jo zuen goia, 466 saioekin. Nafarroako Gobernuak ere proiektua lagundu izan du (orain «Liburuak gozagarri» izenburuarekin) eta, azken ikasturtean, esate baterako, 160 saio bideratu ditu, baina Ipar Euskal Herrian, tamalez, anekdotikoak dira ekimenak: 2 saio azken ikasturtean, pasioak bai baitu mugarik. Katixa Dolhare-Zaldunbideren esanetan, «oro har, idazleak ez dira maiz gonbidatuak klaseetara, hainbat arrazoinengatik (dirurik ez da, literatura lantzea klasean ez da erraxa, irakasleek lan gehiegi dute horrelako proiektuak muntatzeko, etab.). Dударik gabe, idazleak eskoletan programa garatzeko da Iparraldean!».

30 urte inguru... Urte asko, milaka saio, milaka haur protagonista, batzuk irakurzaletu zirenak eta gaur egun idazle ditugunak, programan partaide apasionatuak direnak, hala nola Garazi Albizua edo Esti Vivanco: «Gaztea nintzenez, ikastolara zetozen idazleak mirespenez begiratzen nituen bezala, gustatuko

Esti Vivanco



Juan Kruz Igerabide



litzaidake euskal idazleok egungo gazteengan ere interes hori piztu ahal izatea. Neure istorioak irakurri dituzten ikasleekin egon ahal izatea guztiz esperientzia aberasgarria da eta idazten jarraitzea animatzen nau».

30 urte inguru... Urte asko, milaka saio, milaka haur protagonista, baina haien ingurumariako harreman sare konplexua nabarmendu beharra dago, eta askotariko konplizitateak. Antton Kazabonek irakaslearen figura nabarmentzen du: «Bisitaren arrakasta, neurri batean, idazlearen esku dago, edo liburuaren esku; baina, batez ere, IRAKASLEAREN ESKU. Saioa hasi baino lehen, ikasleen harrera ikusi orduko, badakizu irakaslea inplikatu den ala ez. Eta nik uste, gure programa hau hobetzeko, arlo hau dela indartu beharrekoa. Irakasleak motibatu behar ditugula, urteroko errutinan eror ez daitezen bisita hauek antolatzerakoan». Hamaika euskal idazle bat datoz iritzi horrekin, eta beharbada Antonio Muñoz Molinaren *Plenilunio* nobelako pasarte honetan laburbildu daiteke: «Irakasteak dagoeneko ez nau ilusionatzen, ez dut indarrik, eta, gainera, ez dira garairik onenak lan hori egiteko. Tamalgarria da, zurekin irakurtzen eta idazten ikasi zuten haurrak, nola hazi eta, batez ere, nola zabartu diren ikustea, zeinen azkar galdu duten irudimena eta grazia, zeinen azkar egin diren nagusi eta zakar».

Maribel Aiertzak beste konplize ezinbesteko batzuk ere aipatzen ditu: «esperientzia aberasgarria da ikasleentzat eta baita idazleentzat ere. Irakasleen inplikazioa garrantzitsua da, baina familiak eta gizarteak ere lagundu behar du irakurzaletasuna sustatzen. Irakurketari, idazketari eta liburuari balioa eta ikusgarritasuna eman behar zaio. Horretarako, erakundeen baliabide gehiago behar dira, komunikabideen inplikazioa, bitartekarien konplizitatea...».

Tamalez, Eskoletako biblioteka eta bibliotekari asko desagertu egin dira.

Irakurleak, irakasleak, idazleak, bibliotekariak, hezitzaileak, editoreak... liburuarekiko pasioak behar dituen konplizeak dira guztiak eta, liburua, Borgesen esanetan giza tresnetan miresgarriena da: «gainerakoak, pertsonaren luzapenak baino ez dira: mikroskopioa eta teleskopioa ikusmenaren luzapenak dira; ahotsarena, telefonoa dugu; goldea eta ezpata besoaren luzapenak dira. Baina liburua besterik da: memoriaren eta irudimenaren luzapena da». Horra gure pasioa. Horra gure aukera, bereziki zaindu eta baliatu beharrekoa, baina Juan Kruz Igerabidek dioen bezala: «Kasu askotan, euskal literaturako zenbait idazleren lanak irakurtzeko eta idazleak berak ezagutzeko aukera bakarria izango dute bizitzan; gero hartuko duten bideak literaturatik erabat urrunduko baititu, tamalez...».

1.c. PAISAIA

Eskola, ikastola, ikastetxea, institutua dugu ikaslearen eremu naturala, pasioaren kokalekua —gaur egun baita hamaika eginkizun eta betebeharraren ere...—, baldin eta erakargarria bada. Eskola dugu «Idazleak ikastetxeetan» proiektuaren espazio naturala eta, beharbada, ez genuke Jostailuen Erresumarekin kontrajarri behar, handik gehiegi urundu behar. Baina, bistan denez, 30 urteotan paisaia hau izugarri aldatu da, gizartea bera bezala. Santiago Beruete irakasle-idazleak dio aro digitalak iraultza mentala ekarri digula, baina ez gaituela jakintsuago egin, ez gaituela zoriontsuago egin. Paisaia linguistikoa ere erabat aldatu da eta hamaika Babel dorre sortu dira, nahiz eta sarriegitan egoera hori aukeratzat baino eragozpenetzat jotzen den. Baina hauek beste partitura bateko notak dira.

Ikastetxe barneko paisaiara itzulita, Pello Añorgak nabarmentzen duenez, biblioteka asko desagertu dira eta, haiekin batera, eskolako bibliotekariak: «Minduta adierazi dezaket hainbat ikastetxetako biblioteketan zegoen giro bikaina zapuztu egin dela azken urteotan. Zergatik? Bada, hein handi batean, ikastetxeetan zegoen bibliotekariaren figura desagertu delako. Biblioteka zen katalizatzaile ederra liburu desberdinak edukitzeko, girotzeko, liburuekiko ikuspegia zabaltzeko, liburu desberdinak ikustarazteko, liburuei jarraipena egiteko, idazleari ongi etorri beroa eskaintzeko... Hori, zoritxarrez, desagertu egin da. Eta hau pena handiz esaten dut; izan ere, 90ko hamarkadan aritu ginen, kosta ahala kosta, bibliotekariak formatzen, azpiegiturak sortzen eskolako biblioteketan... Eta, denbora gutxian, azpiegitura guztia pikutara joan dela ikusteak pena handia ematen du».

Gianni Rodarrik kontatzen zuen Lenin eta bere senideak lorategi aldeko leihotatik sartzen zirela etxera. Haien aitona, usadio hura ez debekatzeaz gain, aulkitxoak ipini zituen leihotatik arriskurik gabe sartzen jarrai zezaten. «Istorioren bidez —eta horiek sortzen dituzten prozedura fantastikoen bidez—, haurrei errealitatera atetik ez, baina leihotik sartzen laguntzen diegu. Dibertigarriagoa da eta, beraz, baligarriagoa». Agian hortxe dago gakoa: sarbide egokiak asmatzen.

Pello Añorgak nabarmentzen du eskola batzuetan ez direla konformatzen galderak egitearekin eta, nolabait ere, halakoetan eskolako kide guztiak sartzen direla leihotik, eskola Jostailuen Erresuma bihurtzen dutela, pasioz bihurtu ere: «Gutxi dira adierazpideetan sakontzen dituztenak: antzerkia egin, liburuan oinarrituta ipuin berria idatzi, plastika forma berriak asmatu... Pasadizo gisa aipa dezaket eskola batean egin zutena nire liburu batekin: “Bide magikoa” liburuan oinarrituta nola eskola guztia bihurtu zuten *bide magiko*. Hura festa! Hura zoramena! Hura *performance*! Liburu batean oinarrituta uztartu zuten hainbat diziplina! Eta parte hartu zituzten gela desberdinak, ziklo guztia inplikatu, gurasoak barne».

Liburu egokiak aukeratzea eta eskaintzea da gakoetako bat.

2. P, P, P

Beduinoek, ilunabarrean, kanpamendua altxatu ostean, duna baten gainean lanparatxo bat piztu ohi dute: faro bat hondarrezko itsasoan. Eta kanpamendura pertsona galduren iritsiz gero, printze~sa, preso eta poetatzat hartzen dute orduan: izena baino ez diote galdetuko eta, aldiz, daukaten guztia eskaintzen diote. Printze~sa sentitzearekin batera, bidaiaria preso sentituko da hainbeste ohoreren artean eta, akaberan, bere esker ona adierazteko poeta izatea egokituko zaio. Idazleak ez ote du antzeko zerbait pentsatzen liburu bat sortzeko orduan? Irakurleari gozamina eskaini nahi dio, letrazko oasi bat, baina baita harrapatuko duen istorio bat, preso sentiaraziko duena, eta amaieran subliminalki poeta izatea eskatuko dio, jantziagoa izatea, esker onekoa eta manera finekoa agertzea.

2.a. PRINTZESA

Idazlea liburu erakargarri bat sortzen saiatu da —hori du eginkizun—, baina zein liburu aukeratu behar da ikasleek gozatu dezaten, istorioan katigatuak senti daitezten, liburua benetan giza tresnarik memoriatsuen eta irudimentsuen bihur dadin? Antton Kazabonek derrigortasunaren auzia eta errealitatea nabarmentzen du, eta Pello Añorgak gaineratzen du haur gehienek liburu bat baino ez dutela irakurtzen: «ez zaie uzten, edota aukerarik eskaintzen, liburu gehiago irakurtzeko beren gisara. Gainera, esango nuke, batzuetan testuliburu gisa erabiltzen dutela: hizkuntza lantzeko, programaketaren gai jakin batekin lotzeko... Eta arriskua dago ekimena izatea eskolaritzeko jarduera polita, eta ez desesklaritzatzeko jarduera arnagarria». Alegia, leihorik gabeko eskolak; jauregiak, kartzela bilakatuak.

Maribel Aiertza



Pello Añorga



2.b. PRESO

Ikasle-irakurleak, zenbaitetan, liburuan baino eskolan sentitzen dira preso, ikastetxearen kaiolan. Batzuetan gai dira beren sentipena adierazteko: 'Lehen, liburua irakurtzen ari nintzela, ahots bat entzuten nuen neure baitan, baina institutuan baliabideak, egiturak eta gainerakoak aztertzen hasi ginenean ahots hori desagertu egin zitzaidan...'. Beste batzuetan grafiti bat egingo dute, guri aldarri egiteko...: «BURUAN TXORIAK DAUZKADALA DIOZUE, BAINA ZUEN KAIOLAK BAINO NAHIAGO DITUT».

Ez da kontu erraza. Gainera, besteak beste Castillo Suarezek edo Maribel Aiertzak nabarmentzen duten bezala, gero eta liburu gutxiago ikusten da eskoletan. Batzuetan, irakasleak bat dauka eta ozenki irakurtzen du. Bestetuetan, ez da liburu bakar bat ere ageri: «Non geratzen da liburuak dedikatzearen poza?». Zenbaitetan, badirudi programako saioak ezohiko izatetik aruntak izatera igaro direla, utzi egin diotela ospakizun izateari. «Eskoletan *overbookatuak* dira eta ez dute denborarik literatura *errealari* interesatzeko...», amaitzen Itxaro Bordak.

Bizitzari buruzko hamaika berriketa eta hausnarketaren ostean, bi idazle ontorio honetara heldu omen ziren: 'Bizitzan, hiru pertsona mota dira beharrezko: *irakasle bat*, bizitzan lagunduko diguna: irakasleena harrotasunik handienaz bete

gaitzakeen lanbidea dugu, baina aldi berean apalena da; *sendagile bat*, gu zaintzearekin batera, hiltzen lagunduko diguna; eta

EZ

esango duen pertsona, germen inkonformistari, giza duintasunari eutsiko diona.

2.c. POETA

Anjel Lertxundik zioen ume bakoitzak idazle bat, poeta bat duela barruan, eta horixe nabarmentzen dute, besteak beste, Pello Añorgak edo Amaia Hennebuttek: «Gaurko irakurleak dira, baina biharko idazleak ere bai! Ikus dezaten pertsona aruntak gairela eta sortzeko aukera eskain diezaiegula».

Pertsona aruntak, poetak..., pasioa lanbide ere badutenak. Pako Aristik, Aitor Aranak edo Fernando Morillok dioten bezala, «Idazleak ikastetxeetan» ekimenak mesede egin dio profesionaltasunari, lagundu egin du prekaritateari aurre egiten.

3. P, P, P

Atzera Delibesen hiru P haiek gogoan, argi dago nork bere bizitzaren protagonista izan behar duela, bere pasioa bizi behar duela, bere paisaiak bilatu... astabelarriak atera ez dakizkion. Agian horretan ere lagungarri dugu «Idazleak ikastetxeetan programa».





SAIO BATEN PRESTAKUNTZA

- IDAZLEAK IKASTETXEETAN -

Irakurle sortzailearen eta idazlearen arteko topaketa bat aukera paregabea eta errepikaezina da, oparia eta zeremonia: elkar ezagutzeko, elkar motibatzeke, sormena bultzatzeko.

A. PRESTAKUNTZA

- Liburuaren edo liburuen aukeraketa egokia

irakaslearen eta idazlearen artean adostua, mailaren eta tokian tokiko ezaugarrien arabera.

-Liburuak eskuratzea

modu batera edo bestera —erosketa, liburutegietatik lortzea, sekula ez fotokopiatzea— ikasle bakoitzak liburu bat edukitzea komeni da.

-Liburuaren lanketa

motibazioan oinarrituko da, kontuan izanik ez gaudela testuliburu baten aurrean (tertulia dialogikoa, marrazki pertsonalak, booktrailerrak, nor bere amaiera asmatzea, saiorako galdera egokiak prestatzea...)

-Ikasle kopuru egokia

ikasgela naturala da irizpidea, baina kontu hau ere irakaslearen eta idazlearen artean adostuko da (beti dago saio osagarri bat edo batzuk egiteko aukera).

-Kokapena

liburutegia, ikasgela... dena delako aretoa egoki prestatu behar da, isiltasun giroan.

-Abisua

idazle gonbidatuari saioa gogorarazteko mezua idaztea komeni da, nahasketarik sortu ez dadin.

B. SAIOA

-Idazleari harrera egitea

arduradun, irakasle edo ikasleen beraien bitartez, idazlea ikastetxean ongi hartua senti dadin.

-Kokalekua

aulkiak, apainketak, arbela —digitala, bestelakoa—, edota pantaila; eta idazlearentzako mahai bat, botila ura...

-Irakaslea

haien presentzia eta kokapena ere ezinbestekoa da, saioa behar bezala bideratzeko, ikasleak motibatzeke.

-Iraupena


salbuespenak salbuespen, ikastordu batekoa da.

-Liburuak sinatzea

tarte bat uztea komeni da eta mahai egokia prest egon behar da horretarako.



1001 esker *Hegats* hau apaindu duten
11 ikastetxetako haur sortzaileei,
berezi Oronoz-Mugairiko eskolako haurrei.





福

年

好運

財

平安